P. ARRADOY

# KATALIÑEN GOGOETAK

AITA LUIS VILLASANTE
FRANTZISKOTARRAK

Gipuzkoako euskeraz jarriak

ARANTZAZU IRARKOLAN EGIÑA
1958

NIHIL OBSTAT

Sancti Sebastiani, 26 Novembris 1957

Fr. Petrus Aranguren
*Censor Ordinis*

IMPRIMI POTEST

Sancti Sebastiani, 26 Novembris 1957

Fr. Benedictus Mendia
*Min. Prov.*

IMPRIMATUR

Sancti Sebastiani, 24 Decembris 1957

D. Joseph Crux Sudupe
*Vic. Gen.*

# *Irakurleari*

*Orain argitaratzen degun euskal liburu au, 1955 gn. urtean agertu zan lenbiziko aldiz Baionan, Frantzia-aldeko euskeraz egiña, eta arrezkero oso ezaguna eta zabaldua dago ango partean. Beronen egillea izenorde baten azpian gorde zaigu. Baiña danak dakite egille orren egiazko izena zein dan, eta ala guk ere bildur gabe salatuko degu. Ez da nolanaiko gizona, gaiñera:* P. Narbaitz, *Baiona-ko Apezpiku Jaunaren Vikario Generala. Jaun argi ori Be-Naparroko eskualdekoa da, baigorritarra. Liburu onezaz gaiñera, illeroko bat ere egiten du etxeko andreentzat:* "Etchea", *ango bost milla etxetan sartzen dana.*

*Liburu onek bereganatu duen estimazioaz auxe bakarrik kontatuko dizut. Aurtengo udaran ango aldean nenbillela, eta ango euskaltzale batekin itzegiñaz —Zerbitzari jaunarekin, alegia—, bere euskal liburutegia erakutsi ondoren, azkenekoz* Kataliñen Gogoetak *atera zizkidan, esanaz:* "Eta azkenik, gure artean iñoiz agertu dan libururik ederrena, baliotsuena ta maitagarriena, KATALIÑEN GOGOETAK. Au bezelakorik ez degu".

*Zer da, ba,* Kataliñen Gogoetak? *Nor degu Katalin ori? Baserriko etxeko-andre bat. Aren burutazioak edo bakar-izketak salatzen dira emen. Katalin emazte ona ta ama ona da, noski, ba-daki bere etxea ta familia ongi gobernatzen. Kristautasunean sendo sustraitua, kristau fedearen begiekin ikusten du bizitza. Nik esango nuke, bai beste munduko begia, eta bai emengoa ere, bi-biak erne ta zoli dituela gure Katalin onek. Edozein arazo edo ixtillu erabakitzean, bereala ezagun zaio ori. Asko erakusten duen liburua, erakusteko itxurak artu gabe, ordea. Gozo, errez, labur, erritar kutsua dariona. Edozein euskal familiak arkituko ditu emen bere bizitzako zati edo puskak, eguneroko biziera arruntaren argazki batzuk bezela. Eta nola dakian liburu onek familiko biziaren ederra agertzen, bizi ori goiko argiak argitzen eta gidatzen duanean!*

*Egun batean kontatuko digu Kataliñek nola eta zergatik zaitzen duen ain maitekiro bere gizonaren ama xaarra (ainbeste kristau etxetan ain gutxi egin oi dana). Beste egun batean, nola eta zergatik saiatzen dan etxea txukun jartzen, bazkaria ere ez nolanai eta beti berdiña, baizikan gisakoa eta ona prestatzen: gizonek etxean kabi atsegiña arkitu dezaten, eta ala, etxea maitatuz, tabernara gutxiago joan ditezen; ta abar. Elizak ta erlijioak zer parte duan aren bizitzan, auzoko atsegin-atsekabekin nola kezkatzen dan, seme-alaben azierari buruz dituen uste eta burubide zuzen egokiak, danak daude ederki baiño ederkiago azalduak.*

*Jakiña, emengo ta ango Euskalerrian ez dira oitura danak berdintsuak, eta orregatik ba-dira gauza gutxi batzuk emengo bizimoduari ain egoki ezdatozkionak. Adibidez, Jainko gabeko eskolaz diona, edo kanposantuari buruz jartzen duena. An, illerri edo kanposantuak erriko elizaren inguruan egon oi dira, danon bistan eta gertu-gertuan. Ala konprenitzen da etxeko illobia Kataliñek ain sarritan garbitzea eta apaintzea. Emen bezela etxetik urruti balego, ez det uste ainbeste aldiz joango litzakenik zeregin eder ori egitera.*

*Euskera batetik bestera itzulpenak egin bear izatea lotsagarri dala esango du, bearbada, batek baiño geiago. Eta aldez ala da. Izan ere, euskaltzale ikasiek ez dute, noski, argitaratze onen premiarik. Alakoek jatorrizkoa irakurri dezakete, jatorrizko bere izkeran. Ainbeste egitera bearturik daude beren burua euskaltzaletzat jotzen dutenak. Baiña nola liburu au erri-erriarentzat egiña izan dan, eta emengo erriari ango euskera zail eta arrotz egiten zaion, gure artean ere liburu onek on aundia egin zezakela oarturik, emengo gure euskerara aldatu det, ango kutsu guztia kendu gabe, alere. Erriarentzat ari naiz ba, eta orregatik izkera ere alik eta argiena jarri nai izan diot.*

*Eta beste arrazoi bat ere ba-nuen gogoan, lan au egiterakoan: baserriari laguntzea, alegia. Danok dakigu zein arrisku aunditan arkitzen dan gaur euskal baserria. Danak fabrikara joan nai. Kalera igesi. Kaleko lilturak artuak gaude, nonbait. Ez al zan komeni, une ontan, baserriko bizitzaren alderdi onak argitan jartzea, besterik ezpada, gure nekazariek beren bizieraren poza ta zoriona obekiago ezagutu ta sentitu dezaten, eta etxea ta lurlana maiteago biurtu dakizkien?*

*Gaiñerakoan, eskerrak biurtzen dizkiot egilleari, argitaratze au egiteko eman dizkidan baimen eta errezta-sunengatik.*

*Eta betoz onelako Katalin franko. Eta auek liburu ontan laguntzarik arkitzen baldin badute, ontzat emango det nik nere lana.*

*Arantzazu, 1957-ko Azaroan.*

AITA LUIS VILLASANTE
frantziskotarra

# *Itzaurrea*

*Ez neri galdetu nor dan* Kataliñ *ori.*

*Ez dizuet salatuko... neronek ere ez baitet ezagutzen!*

*Baiña, Jainkoari eskerrak, ba-da olako* Kataliñ *franko bazterretan: ala Zuberoko txokoan, ala Amikutzeko oianetan, ala Garazi edo Baigorri aldeko mendietan, ala Iholdi edo Lapurdiko erreka edo zelaietan.*

*Bai, olako franko: lanek janak, goizik jaikiak, berandu etzanak, beti besteak gogoan, beren buruaz ajola gutxi; ez aberatsak, ez eskolatuak, ez lurralde asko ikusitakoak, baiñan bai doai bearrenez beteak, eta nola argituak, zein jakintsuak!*

*Ez da arritzeko. Aurrekoek utzi zieten diru gutxi, baiñan onik asko: aiek erakutsirik ba-dakite ezerezekin bizitzen, lana maitatzen, beren burua aaztutzen. Mundu*

*ontan begiak idiki bezain laister, argi bat izan dute gidari, fedea. Ez liburuetako ura, baiñan Jainkoaren graziak biotzetan erne eta otoitzak zaitzen duena.*

*Eta nolako erakusleak izan dituzten! Beren antzeko gurasoak, edo obeak, mintzaira zoragarri bat orain ez bezela mintzo zutenak, eta apaiz batzuk, gisa berekoak, artaldearentzat bakarrik bizi ziranak!*

*Aski izan du beraz P. Arradoy-ek begi-belarriak idikitzea: aski izan du begiratzea eta aditzea...*

*Euskaldun emakume maitagarri oien urrats eta esanakin lilluratua egona da bein baiño geiagotan. Liburutxo ontan ezarri ditu, ez bailukete galdu bear... bildur baita P. Arradoy,* Kataliñ *baliotsu oien azia gutxitzen ez ote dijoan!*

*Oraingo egunak ain dira naasiak... Kataliñ gaisoa! Bera ere ez ote da griñatzen asia? Aren burutazioak ez dira bakarrik lengo bizimoduari begira. Oraingoa ere gogoan dute. Geroa, Jainkoaren eskuetan da, baiñan guk ere ba-degu gure lan-partea, Jainkoak egingo ez duena!*

*Irakurle,* Kataliñ-*ekin egunero pitin bat solas egiñaz, nork daki ez ote dezun izango argi eta indar geiago?*

*Agian bai!*

Azkaraten, 1955'ko urte-asieran
P. ARRADOY

# *Goizean goizik*

Bost eta erdiak...

Neroni oartu gabe, Joanes joan zait beiak gobernatzera.

Lendabizi leioak zabaldu ditu, otoitzean mar-mar ari zala, eta kanpoko aize freskoa barnera eldu zait, ni esnarazteko eran...

*
* *

Ba-det esnatzeko premia, lo nago-ta...

Lo, oetik jaikitzean!

Bart berandu etzana, ez da arritzeko gaur gorputza ain nagi baldin badet...

Eup... gora!

*
* *

**Aitaren...**

Oi zer goiz ederra!... Txoriak kantuz, eguzkia irriz, eta an, beko zelaian, iturriko uraren soiñu etengabea...

Zein ederrak diran zure obrak, Jauna!... Eta ni? Zure obretan kaxkarrena, noski?

Nere berrogeita bi urteen karga emen det bizkarrean: ez zait iruditzen gutxituaz joango danik...

Baiña, zuk, Jauna, beste kargarik ekarri dezu... Zer da nere karga, zure gurutzearen ondoan?

*
* *

Gaurko lana, aurretik ikusten det. Larunbata... etxe guztiari garbialdi bat eman bear... apainketak ez ditut bukatu... plantxan asteko nago, eta oiek, beste lan guztien gaiñera!

Baiñan zu ere, Ama zerukoa, orrela ibilli ziñan, burua non jarri etzenekilla... Eta alere barneko pakea ez dezu sekulan galdu... Barnean baitzenduan Jainkoa!

*
* *

Beraz, aski da?...

Aski, egun au pozik igarotzeko?

Ni, Jaunarekin, Jauna nerekin. Zeren bildur naiz, beraz?

...Goizeko otoitza nai nuke oso-osorik esan, baiñan betarik ez. Ez al didazu parkatuko, zuri buruz baitijoa, Jauna, goizeko nere leen-gogoa?

# *Piztua!*

Zer goxoa! Sua pizturik aurkitzen det!...

Egia esan, aspaldian asia zait lan ortan Joanes gaisoa.

Ezkonberri giñalarik, etzan ala. "Zu barneko, ni kanpoko".

Biziak, ordea, eztu olako mugarik!

Laister oartu gera bear eta obe genuela eskuz esku aritzea...

*
* *

Oi! Jainkoari eskerrak, etzait ez emakume biurtu gure gizona, eta ez det uste ni gizondu naizenik.

Baiñan ez nau bakarrik uzten... Leen gure aitak etzuen baratzean aitzur bat ikutuko. Joanes ari zait gogotik lur itzultzen, baita ere, bear orduan, aza landatzen edo bidea egoki jartzen.

Zurezko abarka zikiñekin etortzen zitzaizkigun gustorik aundienaz sukaldera gure gizonak. Orain ba-dakite oiñetakoak aldatzen. Ur karriatzen ere ikasi dute, baita egurrak ondo txikitu eta barnera ekartzen... Diferentzi ederra lendik! Eta zenbat olako?

*
* *

Nai nuke jakin nondik eldu dan aldatze ori. Ez dute nere deadarrek kanbiatu gure Joanes. Ez gera deadar zaleak: ez degu ortarako graziarik...

Zerk du, beraz, kanbiatu? Bizia bera izan ote du maisu? Ala ni?...

*
* *

Egia esan, beti gogoan izan det bear niola bere lan gogorra gozatu.

Al nuen bezela... kanpotik akiturik zetorrenean, eta muker antzean, oartu naiz laister aski zuela nere begirada bat, irri-erdi bat... Eta beti eman diot.

*
* *

Nork daki ez ote nauen maite, nik maite dedalako?

# *Esnatu!*

Nere lau aurrak oraiño lo daude.

Beude. Gazte dira.

Baiña ez geiegi. Gurikerian azitzeak ez du batere onik.

Eta goizik bear dute ikasi bizitza ez dala jolasa.

*
* *

Zazpirak... Nere neska zaarrenak jaiki-ordu du.

Ura aurrena, bear baitu ikasi bere anaiak janzten.

Eta lendabizi, garbitzen! Ez zaie ori asko gustatzen, alajaiña! Bearbada, aur guztiena da.

"Maider, (1) jaiki adi! Ordua den!"

*
* *

Isil isillik ari da bere kuartoan... Gero entzuten det albokoan... Zer da iskanbilla ori? Mutiko gaiztoak!...

"Ama!... Pettanek nai du leenik garbitu! Beti txanda kentzen!"

---

(1) Maider: Mari Eder. Eta Kataliñen beste semeak: Pattin: Martin; Peio: Pedro; Pettan: Beltran. (Aldatzailearen oarra).

Egia esan, birigarro polita datorkigu Pettan: bost urte baizik ez, eta zer txoria! Bearbada, guk ere mimatzen degu pixka bat. Txikiena...

Poliki poliki isiltzen dira bazterrak, Maiderrek baitaki belarrondoko batzuk ematen.

*
* *

Eta ara sukaldean Maider bere iru koxkorrekin. Lendabiziko begiraldia sukalde-gaiñari. Baiña bear dute otoitza egin leenik!

"Ea, kendu txapela!..." Leenago, goizero, otoitz luzea egin-arazten nien.

Orain, eskolara ari dira-ta, motxagoa aski dutela iruditzen zait. Motxa, baiña gartsua... Begiak itxirik...

*
* *

Al dala, neronek ere berekin batean egiten det: "Eskeintzen dizut, Jauna, egun au..." "Aitagurea"... "Agur Maria"... "Siñesten det"... "San Jose... Gure Aingeru Zaindaria..." Ez ote da aski?

# *Eskolara*

Etxea utsik dagoela ematen du, nere iru txikiak eskolara joan diranean. Zer pakea!

Aruntzean bizkor ibilliko dira, maisu jaunaren bildurrez. Baiñan itzultzerakoan, beti prisa gutxirekin...

*
* *

Etxean ere makiña bat mesede egiten dute aurrek... baiñan besterik det gogoan. Norekin dabiltza nere aurrak? Pelotan pixka bat ibilliarren ez naiz arritzen, ez naiz aserretzen...

Ez dira beti pelotan ari... Eta asteko, nere zaarren orrek, ba-du, nere ustez besterik buruan. Baita mingaiñean ere... Ez zait geiegi gustatzen Buztingorriko ankaluze orrekin beti ibilli dedin. Biek amabi-amalau urte, ni bildur naiz izkera ez dutela beti zuzen...

*
* *

Eta ni ez beti an, zuzentzeko. Ez bear ere, agian. Gazteek ez ote dute beren buruen jabe izaten ikasi bear?

Bai, ala da... Baiñan gazte diran artean, laguntza bear.

*
* *

Leenago uste nuen ortarako aski zala eskola. Aspaldi oartu naiz ez dala egia. Zenbat itz, zenbat ateraldi, an entzunak ongi ala gaizki, ez ditut neronek zuzendu bear?

Lengo egunean, bazkaltzean, zer atera digu gure Pattin orrek? Juana de Arco santuak "uste" izan zuela iru santuen boza aditzen zuela... "Uste" bakarrik?...

*
* *

Egia esan, Jainko gabeko eskolan ez da arritzeko olako zerbait entzutea... Ai! Al bagenu! Zeiñen gogotik bialduko genituzken gure aur guztiak kristau eskola batera! Baiña urrutiegi degu...

Eta orra, neroni maisu biurtua... Jainkorik gabe nere aurrak? Neronek bear diet eman!

Eta neronek?...

# *Mojetan*

Sukaldea garbitu eta oilloei jaten eman ondoren, Mojetara joana det Maider.

Amasei urte ditu. Etxean ere ba-degu orren premia, eta auzokoek ez dute konprenitzen zergatik ez dedan nerekin eukitzen.

"*Emakume zozoa! Ez al dakizu alokazioneak* (=puntuak) iritxi ditezkela gutxiagorekin ere?" Ola mintzatu zitzaidan atzo Etxeluzeko Joana-Mari.

*
* *

Joana-Mari gaisoa! Ez gabiltza ez puntuen atzetik.

Artzen ditugu, noski, eta ba-degu oien bearra, ez baitira gauzak Jainkoaren izenean.

Baiñan norentzat dira puntu oiek? Guretzat ala gure aurrentzat?

Nere ustez, gure aurren geroa leen da.

Eta ez det nai nere alaba ni bezain zozo izan de-

din: orren adiñean, etxeko lanetan gauza gutxi nekian, dana nere bizkar ikasi bear gero...

*
* *

Egon gera Maider Baionara bialtzekotan. Baiñan ondo pentsatu ondoren, iruditu zaigu obe genuela etxetik Mojetan ibillaraztea.

Ola, esku-menean degu... eta bestalde, neri iruditzen zait ez dala irian geiegi oitu bear baserri batean bizi bear duen neska gaztea...

*
* *

Jainkoari eskerrak, emengo Mojek ederki jardunarazten dituzte lanean gure etxekoandre gaiak: ez bakarrik bordatzen, baiñan josten, apaintzen, plantxakoa egiten, eta berdin baratzeko lana egiten, oilloak zaitzen, jatekoa prestatzen.

Lilluratua dago Joanes: nik baiño esku obea omen du Maider-ek! Ala obe: ez nago batere inbidiz...

*
* *

...Eta bego Tupintegiko Roxali bere iriko oiturekin!

# *Tupintegiok Roxali*

Ez al dezue ezagutzen Roxali?

Neska gaisoa!... Eta ama gaisoa!...

Aur bakarra. Andere gisa azi dute. Amabi urtez eskolan ibillia ezer gutxi ikasteko,... eta azkenean irira joaten utzi!

Aitamak etxean, lanarekin burrukan, ezin elduz... eta Roxali Parisen!

Zer ari da an?

*
* *

Andere aundi bezela bizi omen zan, baiñan egiak bere bidea egiten du, eta egia jakin degu errian:

Neskame dala, beste Euskaldun geienak bezela.

Ez da ori lotsagarri, ez, baiñan zertako gezurra esan? Eta ama bera beti aundikeriak kontatzen?

*
* *

Joandako udaran emen izan degu. Mokoa mee, ezpaiñak gorri, eta zer frantses zerratua!

Eskua eman nai zion gure Joanesek, eta arriturik gelditu da au, aren azazkal gorrituei oarturik!

Eta aren berriketa! Gu ez omen gera ezer. Ez dakigu ezer. Zozo batzuk. Nor ari da geiago lur-lanetan? Non degu zinea? Eta olako.

*
* *

Alere... Alere... Zenbaitek diote ez duala itxura bezain gogor gogoa.

Norbaitek ikusi ditu negarrez amalabak. Zer zuten?

Pena ematen ziola Roxaliri etxetik alde egin bearrak? Min zuela amak bere alaba galtzean?

Ez dakit. Aita, aldiz, isil isillik, bazterrean. Ez dira negarrez aritzen, gizonak...

*
* *

Eskerrak, Jauna, eman baitiguzu zentzua. Ez gera aberats, baiñan ez gaitu goseak ilgo. Emaiguzu osasuna, eman pakea, ez gera ezeren bildur.

Eta biar, nai badezu, Haritzaldeak bear duen bezelako etxeko andrea!

# *Amona*

"Zaude! Etzaitut ez aaztutzen!"
Amona gaisoa... gure etxeko aingerua!

*
* *

Larogei urte alde-alde ditu nere senarraren amak... eta lau urte auetan ia beti oeratua: aur bat geiago etxean...

Jende asko arritzen omen da nola sufritzen dedan. Nola sufritzen? Ez ote da ola sufritu bear?

*
* *

Betiko entzutea det nola zaitzen ditugun gure zaarrak, ala zaituko gaituztela gure aurrek.

Bestalde, bear litzake zearo biotz gabea izan, zaar bat bere kontura uzteko!

Ez gabiltza ola. Gazteago zanean, ba-zuen alako muker aire bat: bere erraiña neskametzat artu nai

izaten zuen... eta zenbait mokoka egiñak gera. Baiñan non ez da olakorik?

*
* *

Poliki poliki ikasi degu gauza asko irensten, elkar eramaten, elkarri parkatzen eta laguntzen. Eta ez du sekula iñork zabaldu Haritzaldeko zaar-gazteak ondo konpontzen etziralako berria.

Eta orain pake gozoan bizi gera. Amona txit eztitua... eta ni oso-osorik aren aur biurtua.

*
* *

Etxean jo ara, jo onera ari naizela, iruditzen zait, artaz oroitzen naizenean, aingeru zaindari bat ba-duela gure etxeak.

Egia esan, ardura aundiz zaitzen ditu aurrak. Auen poza, aren oe gaiñean! "Amona, konta zaiguzu bartko ipui ura!"

...Baiñan amonari aaztu zaio bartko ipuia. Etzaio orratik aaztu beti aurrean duen errosarioa.

*
* *

Amona gaisoa! Zenbatgarrena ote du gaur?

# *Nere oilloak*

Noiz arte esango det "Nere oilloak"?

Gure Maider ori aspaldian asi zitzaigun esaten: "Utzi neri, ama, nereak dira!"

—"Ireak? Ago poliki, ez aiz oraiño etxeko andre!"

Aitortuko al det? Etxeko andre naizela, ba al dakizu non iruditzen zaidan geienik? Nere oilloen erdian.

*
* *

Batez ere goizean, atea zabaltzen dietelarik, eta burrustan nere oiñazpitara etortzen zaizkitanean, ziñez iruditzen zait ba-naizela norbait... Oni begira, ari oiuka, biurriei purrustada bat, denei artale batzuk eman bear, ba-det zer egin.

*
* *

Eta nere burutazioak! Gure oillaskoak polit samar datozela... Zenbat oillanda izango ote oillo beltzaren txitoetan?... To, beste ori ere oillo-loka egiña.

Ba-gendun ba oraindik arrautzegilleen premia!... Egia esan, gandor gorridunak dira oraindik nagusi. Ala obe. Eta olako...

*
* *

Guzti oiek irrigarri? Baditeke. Dana dala, ez nago nere lan ori iñori uztekotan, eta gogor samar aizatu det Maider: "Arrano ori... kendu adi".

*
* *

Baiñan oartu naiz alere, poliki poliki, neri laguntzen ari zala... Bestalde, Mojetan ikasitako gauzak nai lituzke etxean egiztatu... Zergatik ez? Jakintzari bere etekiña atera bear zaio... Ba omen dira oillo-motak oso arrautzegilleak, eta denpora berean aragi onekoak: ots, guk bear bezelakoak... Baiñan ez omen dira besteekin naasi bear, bistan da... Gure oilloak, berriz, zer naste-borraste! Batzuk beltz, besteak zuri, besteak orixta...

*
* *

Arrazoi du Maiderrek. Joanesek ere ala dio. Egia esan, konprenitzen asi naiz ez dedala beti agintzen ibilli bear, eta bear dedala poliki-poliki nere aurrei eskuarte geixeago eman... Ori da, nonbait, gazteak edukatzea... Eta nork daki ez ote duten ola etxea maiteago izango?

# *Baratzean*

Amarrak! Eta lapikoan ura bakarrik!
Baratzera nijoa, eltzekari billa.

Or ere, txit etxeko andre aurkitzen det nere burua...

Au, nere barrutia. Ez gizonena. Ni naiz emen nagusi eta etxeko andre. Nik agintzen eta nik autatzen zein arlo bear diran patata goiztiarrak ereiteko edo azak landatzeko. Ori nere lana (geienetan beintzat).

Ba-ditut nere txokoak... loreentzat ere. Gure gizonen isekak, asieran! "Zer salda gizenak jan bear ditugun emendik aurrera!" Eta olako.

*
* *

Geroztik, ordea, irriak isildu dira. Nik uste, or barnean, arrosa-usaia etzaiela batere gaizki. Eta bein... gure Joanes ikusi det, bera oartu gabe, krabeliñ batzuek leunki ikutzen. Zoaz zu olakorik egitera!...

*
* *

Egia esan, nere baratza ez da loretegia: bear dan apur ori bakarrik... eta neri iruditzen zait ez dala gutxituko emendik aurrera gure Maider orrekin.

Bai, baratzean ere sartu det Maider.. Eta arekin batean gure bi mutiko zaarrenak. Bai Peiok eta bai Pattinek, zaletasun izugarria dute biek. Eta uzten ditut gogotik: ari ditezela...

*
* *

Je, gazte oiei eskerrak, aberasten ari da gure baratza. Ez bakarrik azak, baiñan aza-loreak ere baditugu orain. Eta gure saillen bazterrak maiatzean marrubiz jantziko dira: dudik gabe, izango dute bai estimazioa.

*
* *

Zeruko Jauna, guzti oiek zure eskutik ditut. Zeiñen ona zeran! Goizero emen aurkitzen det zuk bidalitako gure janaria.

Lanean ari bear gera, noski: baiñan atsegin da lanean aritzea gauzak ola datozenean... Egia esan, arrak eta zomorroak ere etortzen dira noiztenka, baiñan etorriko ezpalira, bearbada gaizki oituko giñake, ezta ala?

# *Eguerdi*

Zein aguro eldu dan eguerdia! Eta ni ain atzeratuta...

Alere ez det denporarik galdu. Esne-biltzailleak bereala bialdu ditut..., pixka bat izketan egoteko gogoa ba-neukan baiña...

Izan ere, etxe aundi onek zer lanak ez ditu! Bearrik, aurren oeak egiten dizkit Maiderrek, baiñan ainbeste kuartu ta gela garbitzen, zenbat denpora eman bear!

*
* *

Eta orain, bazkaria prestatzen ari naiz. Salda ia egiña det: ona dirudi, franko gozatua, gatz-piperrak bere tamaiñan... Baiñan gero?

Je, laburrenera jo bearko gaur. Saldako patata batzuk leertuko ditut, gero esne-tanto batekin naasiko, eta koipe-ontzitik lukainka-txistor batzuk botako... Damurik, gutxitzen ari zaizkit. Baiña tira, jateko dira...

*
* *

Ez dakit gaur nola egin zaidan ain berandu.

Etzait batere gustatzen azkeneko momentuan ola presaka ibiltzea.

Besteetan, bezpera arratsean nere alabarekin autatzen degu biaramoneko bazkaria. Milla aldiz obe baita.

Ola egin ezkero, ez gera beti saltsa beretara joaten, eta zerbait aldatzea on da.

*
* *

Gauzak aurretik gogoratu ta erabakiaz, milla aldiz obeki ateratzen gera.

Ori ba-dakit, Maider aspaldian asia baitet kontuak ateratzen. Leen itsu-itsuan ari giñan, al genduan bezela, edo obeki esateko, nolanai...

*
* *

Gure errian fama omen da Haritzaldeko jendeak ondo bizi dirala. Tira, ez naiz batere lotsa. Geiegikeririk ez, baiñan bear diran gauzak, al bezain ondo, eta ez beti jan-mota berdiña.

Aspaldian oartu naiz ori ez dala bakarrik gorputzaren onerako, baiñan familiaren onerako ere bai. Bazkari ederra degunean, bekoki illunik ez.

# *Zein goxo!*

Zein goxo, familia guztia maiean...

Batzuk eskolan, besteak etxean edo kanpoan, danak lanean ari izanak, zein goxo ola lasaitzea, elkarrekin!

*
* *

Elkarrekin... Egia esateko, mai-bazterrean nago ni eta sarri izaten det zutitu-bearra, baiñan alere Maiderrek *uzten nau nere jana gustora bukatzen*, eta drist-drast biltzen ditu platerak. Ez al da zuzen?

Baiñan ez uste, ez zait geiegi kostatzen jan-bitartean ere lanean aritzea. Oroitzen naiz, aur bat bularrean nuelarik, zer atsegiña zan neretzat aur ori azitzea...

Beste modu batera da orain. Baiñan ez ote ditu orain ere amak guztiak azi bear?

Aitak, berriketa gutxi. Isil-isillik, jan eta jan ari da. Joanes gaixoa! Zurrut bat egin artio, begitartea ez zaio argitzen. Zer ote du gogoan? Nekatua, bego, bego...

*
* *

Eta aurren apetitu ori! Auzoko salda beti omen da obea, baiña tira, gureak ere ba-du estimazioa...

Ola gustatzen zaizkit aurrak: salda-jale. Ura jan arte, ez dago besterik. Mizkinkeri guztiak, bazterrera utzi. "Au nai det, bestea ez det nai", zer dira kopla oiek? Ez dira on Haritzaldeko...

*
* *

Gosea pixka bat baretu dalarik, solasak asten dira. Ba-dute zer konta aurrek!

—Ama, Petrinbordako Xanti eta Buztingorriko Bautista burrukan ibilli dira!

—Ama, maisua zakur amorratua bezela genuen gaur.

—Txotxo, ez dek olakorik sekulan esan bear...

*
* *

Bai, maiean ere nik maisu izan bear, maisu-itxurak utzirik, alere.

Jauna, zu ere ez al ziñan mai batean jarririk mintzatu? Ez al zenitun or zure ikasleak ederkienik eskolatu?...

# *Bazterrak garbi*

Larunbat arratsaldea. Maider etxean det. Aprobetxatu bear det etxeari astean beingo garbialdia emateko.

Egia esan, ba-du premia. Igandetan etxe zikiña ezin det ikusi. Etzait iruditzen igandea danik ere.

*
* *

Ori goizik erakutsi diot nere alabari: zorua argitzen ari dala, naiz leioak garbitzen, artu dezala gogoan biar igande dala, Jaunaren eguna, eta Jaun orren omenez ari dala bazterrak dirdizari jartzen.

Bazeneki zer adore ematen didan gogorapen orrek... eta zeiñen garbiago diran gure bazterrak!

Beste jaun bati ere etzaio, nonbait, gaizki iruditzen.

Batzuk esaten dute gizonei berdin zaiela bazterrak txukun ala zarpil... jum, gureari beintzat ez!

*
* *

Ez dira bazterrak aski. Soiñekoei ere bear zaie begiratu bat eman, eta frankotan puntu bat edo plantxa-aldi bat ere bai.

Zein goxo, larunbat arratsetan, oerakoan, oe-gaiñean edo silla-adarretik zintzilika aurkitzea, gertugertu, biaramoneko soiñekoak!

Mutikoek ere ba-dute lan oiñetakoak garbitzen! Irurak ari dira, erdi eztabaidan ta zalapartaz. Eta gure Pettan txikia ez da atzenengo gelditzen.

*
* *

Bai, biar zer goxoa!

Ba omen dira jendeak eta errialdeak iganderik ez dutenak: nola bizi ditezke?

Neri iruditzen zait jendea berritzen-edo dala igandetan...

*
* *

Gaur gabean edo biar goizean, gure gorputzak garbialdi bat artzen duen ezkero... ez al degu barnea ere ariñago aurkituko? Apaizak berak, **"Asperges me"** kantatuaz, ez ote digu anima garbituko?

# *Kanposantuan...*

Illean bein gutxienez, jorraia arturik, joaten naiz kanposantura.

Ez da gure illobia beste batzuena bezain dotore eta ospetsua: ez du ajolik. Aize-kontuek ez dakarte ondore onik. Arrokeria izatekotan, ez nuke seguruasko ortan ipiñiko.

Austerre egunez apaizak esaten duan bezela, auts gera, eta autsera itzuli bear: zertako, beraz, autsaren gaiñean arri ospetsuak jarri?

*
* *

Nik beintzat aski det arri bat edo gurutze bat, eta maite det noizean bein lur santu ori jorratzea: iruditzen zait gure ildako gaixoekin elkartzen naizela, eta nolabait nere eskuekin ikutzen ditudala.

*
* *

Leen ain garesti erosten genituen perlazko koroiak ere, aspaldion utziak ditugu.

Etxeluzeko Joana-Marik esaten zidan baratzeko loreak baiño milla aldiz obe dirala: "oiek beintzat irauten baitute".

Nik, berriz, milla aldiz naiago baratzeko loreak... ez dutelako irauten! ez nautelako loakartzera uzten! astero-astero berritu bear diralako!

*
* *

Eta nere jorraiarekin karra-karra ari naizela, gogoan ditut nere ildako gaixoak: gure aitona, orain dala iru urte Jainkoak bereganatua, baita aren aitamak ere, eta zenbat aurreko!

Gogoan batez ere nere aur maitea, Madalen txikia, ezin aaztua, iru urtekin zerura egaldatua...

*
* *

Betiko esaera da familia guztiek bear dutela gurutze bat, eta ongi artzen bada, Jainkoak gero ez gaituela sekula bere eskutik uzten. Eta nork daki Haritzaldeko pake eztia ez ote digun Madalenek zerutik irixten?

Negar gozo franko egiña naiz... baiñan alere Jainkoaren borondatea beti onartu det. Orregatik ote naiz gaur, illarri onetan, ia-ia pozik?...

# «*Aitortzen diot*»

Ez nuen ez pekatu aundirik, baiñan erabat zikindu arte egon bear al degu, gero garbialdi bat artzeko?

Ez naiz ola oitua. Nere ama zanak esaten zidan: "Illean bein gutxienez ez baditun autsak kentzen, polita egongo aiz!"

Gelditu gabe egunero bidean ari dana, nola ibilli autsik bildu gabe?

Nola lasaitzen dan anima, illabeteko astiñaldi orren ondoren!

*Lasaitzen... eta bizkortzen.*

*
* *

Nola biurtuko dizkiot eskerrak gure apaiz gartsuari? Arek konpreni-arazi dit maiz konfesatzen danean, bear dala gero saiatu eta alegindu.

Eta nola dakian, goxo goxo, barnera eltzen...

Pekatuak esatea ez zaio aski: nai du batez ere jakin zer asmo dedan, zer biotz, zer gogo. Eta aitortu bear det ez naizela bereala ortaratu.

*
* *

Beti izan det alako bildur bat apaizenganako: nere antzeko asko dira, nonbait, Euskal Errian...

Poliki poliki oartu naiz apaiza dala, guztien gaiñetik, animen Aita... eta poliki poliki nere anima zabaldu diot. Egia dan bezela esango det: olako itzala duen gizonak, ez nuen uste olako biotza izango zuenik...

Geroztik, lau-lau konfesatzen naiz berakin. Guztiak esaten dizkiot: nere utsak, eta nere alegiñak ere bai, eta arek, aur bat eskutik eramaten dan bezela, irakasten dit nola bear dedan aurrera joan.

*
* *

Aurrera! Zabarkeririk ez, eta bildurrik gabe. Zergatik bildur? Ba-dakit aul naizela, beti erorkor eta irristakor, baiña Jainkoa ez dago or nunbaitean, baizikan ondo-ondoan, nere barnean, nigandik nornai baiño urbillago...

*
* *

Ez dakit ongi ote dagoan, baiñan bazeneki aitortegitik zeiñen pozik ateratzen naizan!

# *Aste guztiko indarra*

Gaur beintzat meza nagusira joan bear det.

Maider goizeko mezatan izana da bere lagun gazteekin, eta orain etxean geratu da bakar bakarrik. Eta ni bildur naiz zerbait ba-duela gogoan: nonbait, aste ontan Mojetan ikasi duena bearko degu probatu... Ezen zuringoa eta gorringoa bereizten ari zala ikusi det. Seguru-asko, pastelen bat egingo digu eguerdirako. Zergatik ez?

*
* *

Bitartean, ba-det beste pastelik! Meza nagusia, nagusi. Iruditzen zait ori dala egiazko meza. Batzuk luzeegi aurkitzen dute. Nik motxegi. Zer, astean bein, ordu t'erdi Jainkoarentzat geiegi?

*
* *

Tamala da meza nagusitan zenbait aldiz ain jende gutxi egotea: aurrak (goizegi ezin bialdu ditezkelako), neskatxa kantariak, emakume gutxi, gizon parrasta bat, zaar batzuk... Askori iruditzen zaie goize-

ko meza ura obea dala: "labur eta on", Etxeluzeko Joana-Marik dion bezela... naiz ta gure jaun erretoreak meza laburrak ere luzatzen jakin. Baiñan, bego ortan...

Neri iruditzen zait geienak ez dirala ola debozioagatik ari, eta nai dutela beren igandeko eginbidea goizean bota, gero egun guztia beren buruen jabe izateko. Beren buruen jabe? Ez al da igandea Jainkoaren eguna?...

*
* *

Ni berriz pozez gaiñezka meza nagusitan: aldarea itxura ederrenean, gizon eta emakume, danak kantuz... Zein maite dedan batez ere ain astiro eta ederki kantatzen degun "Credo" ura: badirudi gure fede guztia bere ego aundiekin airatzen bezela dala... zein maite ere aste guztiko meza eta beste berriak jakitea apaizarengandik... Zein maite meza nagusiko komunio ura... badirudi beti Adorazioko eguna dala!

*
* *

Bai, meza eta komunio ortan artzen det nik, seguru-asko, aste guztiko indarra: goizaldeko eguzkiak bezela, bazterrak argitzen dizkit meza nagusiak, argitzen eta berotzen.

Jauna, olako mesede batengatik, nik zer ez dizut zor?

# *Bezperetatik irtetzean*

Ez dakit nik zer pasatzen dan.

Besteen txanda danean, iñor bidali eziñik ibiltzen gera.

Eta nere txanda danean..., danak prest joateko.

Egia esateko, geienetan ba-gera lau edo bost gure etxetik bezperetan. Baiña ez uste guztiak debozioagatik bakarrik joaten gerala.

Aitzaki polita du Joanesek elizatik irtetzean muspartida batzuk egiteko, Maiderrek bere lagunekin besoz-beso ara ta onera ibiltzeko. Mutiko gaizto oiek ere ez dute iñork agindu bearrik pelotan edo bolatan ekiteko. Neroni ere, aitor bearra det, etxerakoan biziki gustatzen zait berriketa pixka bat egitea... iñori izen ona kendu gabe, jakiña: berriketa ez ote da emakumeen jolasa?

*
* *

Dana dala, gaur bezperetan nintzan... etzait ori nai nuken bezain sarri gertatzen. Geienetan besteak bialtzen dizut... eta salatuko dizuet ez naizela orregatik batere aspertzen, ezen or baitet nere errosarioa,

eta "Etchea" izeneko illerokoa ere bai...

Beude alere Bezperak! Aitortuko al det? Iruditzen zait or egiten degula, Meza kenduezkero, Jainkoari geienik atsegin zaion otoitza. Ezen, ia beti eskean ari gera, eskatu eta eskatu: bezperetan, berriz, gure burua eta lur onetako kontuak aazturik, Jainkoari alabantzak ematen eta eskerrak biurtzen.

Ez uste izan latiñean azkarra naizenik (ba-det beste latiñik!), baiñan liburu batean ikasi nuen ori, Bezperak Jainkoaren alabantzak dirala: zein ondo betetzen duten, beraz, igandea, Jaunaren eguna!

*
* *

Tamalez, jendea gutxitzen dijoa... fedea bezela, ote? Baiñan ba-da beste zerbait ere.

Bizikleta oiekin, gazteria errexki sakabanatzen da. Zinerako ere batzuk joera ikaragarria dute. Orregatik ustutzen ari dira ez bakarrik elizak, baiñan errietako plazak ere bai.

*
* *

Ez ote litzake zerbait egin bear gazteria errian jolastutzeko?

# *Azokara*

Goizean, jaikitzerakoan, buruko miña nuen. Eta plazara joan bear, demontre...

Gizon oiek burla egiten didate, buruko min geiago bear dedala plazara uts egiteko, bezperetara ez joateko baiño...

*
* *

Gizonek ez dakite etxe batean zer bear dan... oiñetakoetatik asita... Eta zer esango luke Joanesek beti diru eske ariko banitzakio? Emakume guztiek bezela, ba-det nere kutxatilla... azokari eskerrak, pixka bat geituaz dijoana, noizetik noizera beintzat...

Gure tortillak ba-du batzuetan alako kolore zurixta. Ez da arritzeko: arrautze-dozenak nonbait gordeko ez banitu azokarako, laister joango lirake; gero, berriz, agertuko litzake beste zerbaiten falta ba-degula etxean, eta ez nuke dirurik izango erosteko. Era berean, ez dira ez beti oillorik ederrenak gure lapikora joaten...

Ai! gizon oiek! Balekite etxe batean zer bear dan!..

*
* *

Beraz, merkatari naiz gaur. Joan-etorria bereala

ezin egin, karroan joanda ere... Artuko det, ba, bear dan denpora, sal-erosteak egiteko.

Bestalde, komeni zaigu danoi noizean bein ateratzea... beti barruan egonaz lizundu egiten gera-ta.

Bai, egia diot: bazeneki gogoa nola arintzen zaidan alto-errietako adiskide batzuk ikusteaz, berrien jakiteaz eta denpora berean eguneroko lanetatik kanpo pixka bat atseden artzeaz!

*
* *

Eta nork daki ez ote digun orrenbeste eskatzen elkarrenganako erakutsi bear degun onginaiak? Ez naiz txantxetan ari: Jainkoak egin gaitu elkarrekin bizitzeko, eta ezin gindezke beti egon basati batzuk bezela bakoitza bere txokoan...

Arrazoi ori maite du gure Joanesek ere... ark ere gogoko baitu plazan agertzea...

*
* *

Gaur, ordea, neri tokatzen zait joatea, eta etxean egon bearko du...

# *Beti asten!*

Txistu joka aditu det goizean gure Joanes, bere gurdiaren aurrean arbi-billa zijoala.

Ederki, on dakiola! Nik ez det, ba, txistuz aritzeko gogorik.

*
* *

Ez dakit zergatik, baiñan goizean esnatu naiz gogoa oso illun dedala.

Mezatara joaterik izan banu, bederen! Baiña leenostiraletan izan ezik, emakume bakar batek nola utzi bere lanak astegunez? Egia da orrenbeste galtzen degula uskeritan egunaren asieratik azkeneraiño, baiña gaur beiñipein iñola ere ezin dezaket utzi etxea.

*
* *

Bazeneki zein goibel dedan barnea! Aldez-aurretik ba-dakit nere lanen berri, eta eguneroko bizitza txikiari eldu bearko diodala.

Gosari eta bazkari, zoko-garbitze, oillo-zaitze, eta eta... Atzo egindakoa gaur berriz egin bear. Eta amabost egunetik amabost egunera egin bear diranak,

berdin: gaur lixibako oialak bildu, gero astindu, gero errekan garbitu, gero legortu, tolostatu, plantxatu eta jaso... gero berriz zikintzeko... gero berriz asteko!

Ez, ez da arritzeko nere gogoa illun bada: ain da izar gutxi nere bizian...

*
* *

Baiñan zer diot?

Ez ote dira nere antzeko mundu ontan bizi diran guztiak?

Osasuna euki ezkero, zerk larritzen nau? Lanak? Ez al dute biotza illunago alperkerian bizi direnek? Ez al dakit neronek bereala aspertzen naizela zeregiñik ez baldin badet? Esate baterako, egun pare bat etxetik kanpo igarotzen dedanean?

Lana... Ba al da lagun oberik?

*
* *

Ixo... Elizako kanpaia... Apaiza "Sanctus"-ean...

Jauna, zu ere "beti asten"... Goizero gugana jetxi... Zer, goizero? Une guztietan, gure ondotik zabiltza!

...Jauna, nere Izarra! Orra non argi arrigarri batek argitzen duen berriz nere biotza...

# *Adin txarra*

Aspaldian bildur nintzan erbia nunbait lo zegoala. Leen, txoria bezin alai zan, eta zerk ote digu aldatu Pattin gure mutiko zarrena? Beti isil isillik, muttur-beltz, kopeta illun,... ez da au nere semea! Beti izan da bizia, baiña biotz onekoa, eta orain zein minbera biurtu zaigun!

Itz bat aski du aserretzeko, eta beti dabil bi eskuak sakelean eta burua makur-makur eginda, ez dakit zer gogoan...

*
* *

Ez dakit zer... jakin det alere! Ikulluan arrapatu det bart, Joxe gure morroiarekin izketan, eta aien itzak ez ziran ez aur batek entzuteko modukoak. Lotsagarriak, ez besteak! Arritu naiz.

*
* *

Ez adituarena egin det... eta joan naiz Joanesi kontatzera. Uste nuen erotuko zitzaidala nere gizona, baiñan batere ez. Ez da oiuka asi, ez du esan belarri-

ondokoak bear zituela Pattinek. Isillik egon da. Baiñan aren begiaren berri baitakit aspaldi, ba-dakit zer zuen gogoan:

"Emakumea, ez asaldatu. Pattinek amairu-amalau urte ditu. Ez oraindik gizondua, baiñan gizondu nai. Odola berotzen asia, ardoa udaberrian bezela... Arritzeko al da, zerbait jakin naiez baldin badabil? Ez diogu ezer agertzen oraindik ume dalakoan... edo goizegi eskolatuko dalakoan... Ez al zenuke obe, itz bat esango bazenio? Ezti ezti, demandarik gabe? Guk baiño obeki ba-dakizue itz oiek esaten, zuek, emakumeek..."

*
* *

Obeki, obeki, ez dakit, jum... Baiñan zerbait egin bear dala ezin ukatu...

*
* *

Agian ez naiz larrituko! Ez al naiz Pattinen ama? Pattin ez al da nere aurra? Ez ote du Jainkoak berak nai izan senar-emazteak biziaren iturri izan zitezen? Ba ote da iturri bat baiño gauza garbiagorik... ez bada naasten?

...Ez al det or bertan naikoa gure Pattinentzat?...

# *Ederregi litzake!*

Oraintxe bertan, Joanes, emendik atera da jaun erretorea... Ez zebillen aizea artzen, ezta gaisoak ikusten ere.

Zer nai zuen galdegiten dezu? Ez zebillen eske... bai eta ez...

Zerbait eskeiñi nai zuen, eta zerbait eskatu... Eta eskeiñiak, milla aldiz geiago balio zuen... Zeren ondotik zebillen? Zeren, edo noren?

*
* *

Peioren ondotik... Ez meza-laguntzaille egiteko, aspaldian ala baita, baiñan apaiz... Bai, apaiz!

Aspaldi oartu omen da mutiko orrek ba-duela besteek ez duten zerbait.

Ez da, nai izatea, santu usai aundikoa: Etxeluzeko Joana-Marik dio deabru bat dala. Ez ote dio makilla batekin aate bati anka ausi? Ederrak artu ditu, alere...

*
* *

Baiñan, baiñan... besterik ere ba-du. Eskolan ederki ari da, eta kristau dotriñean beti lenen. Bazeneki

Ebanjelioko istoriak eta irakaspenak nola dakizkin! Orren adiñean Pattinek etzekizkin bei edo ardi-kontuak besterik. Bazeneki zein pozarren egoten dan Peio apaiza entzuten, Jesusez, Santuez edo Elizaz mintzo danean!

*
* *

Esan diot berak ez duela ezer aipatzen... Ez degula bein ere ikusi aldareak egiten eta meza ematen, beste aur franko ikusten dan bezela.

Erantzun dit orrek ez duela ezer esan nai: non duen ziñez gogoa, ori dala leen.

Nik ere ezagutu izan ditut txikitan santu guztiak jan bearrez, eta gero aizeak eramaten die guztia.

Geien geienik gustatzen zaiona jaun erretoreari, oso biotz ona omen du Peiok, eta beti prest omen da sakrifizio bat egiteko. Jesusen Sakrifizio aundia eskeiñi bear duenak ez ote du jakin bear bere burua ukatzen?

*
* *

Aizu, Joanes, jaun erretoreak galdetu dit ia naiko genuen, eta erantzun diot: "Zer dio, jauna? Ederregi litzake!..."

# *Ba-dira egun batzuk...*

Ba-dira egun batzuk... iduri dute Jainkoaren eskutik utziak.

Dana gaizki. Dana makur. Bein asi ezkero, atertu gabe.

Goizean, lendabiziko berria: arratoiek jan dizkigutela sei txito. Zer biotz-miña! Erriko jaietarako oiekin kontatzen bainuen...

Gero, sua beti illa: ni ufa eta ufa, baiña aizea beti kontra, eta gure saldak nekez irakiten.

Gero etorri zait Etxoinbordako gorra: nik beste egikizunik ba, eta ura beti or, esan eta esan; oiuka mintzatu bear, eta erdia oraiño alperrik...

Azkenekoz negarrez ekarri didate Pettan eskolatik... eskumuturra okerturik. Al nuen bezela loturik, kafesne pixka bat bero-beroa emanik, oean ezarri det; an beintzat pakean utziko ninduela-ta. Baiñan, bai zera! "Ama!... ama!...", aren marraka ez da gelditzen. Amonak beintzat artuko balu berekin; baiñan sekulan ez, eta arekin ez nai, gaur dana amazulo, nerekin bear...

Laister etorriko dira gizonak, eta ziriak entzun

bearko: "A, ortan gera oraindik? Berriketa merke izan da gaur, noski!"

*
* *

Eta nik isillik egon bear, gauzak geiago ez okertzeko... Bai, ziñez, ba-dira egun batzuk...

*
* *

...Baiñan arritzeko al da? Gauzak beti ondo joango balira, nork guri eutsi? Ez naiz bakarrik, noizean bein ala irudiarren... Ba-dira beti-beti ola bizi diran emakume doakabeak: lanez itoak, miseriaren erdian, atsedenik ez dutenak, eta sekulan iñork eta ezerk konsolatzen ez dituenak.

*
* *

Nik, berriz, or det familia, or det fedea... Eta oroitzen naiz ba-dala Norbait, oiuz ari izan dana: "Aita, Aita, zergatik abandonatu nazu?"

Orra zergatik, gaur ere, ez dedan konfiantza galduko!

# *Auzoaren alaitasuna*

Aspaldian zeuden itxoiten. Azkenean berria zabaldu da, mutiko eder bat ba-dutela.

Ez da egongo gutxi arro Uhaldebordako nagusia! Eta emaztea, berdin. Orain arte bi neska ba-zituzten, pentsa nolako ongietorria ez ote dioten egingo etxeko semeari!

*
* *

...Baiñan zer ari naiz? Auzoko naizenez, bistan da aei laguntzera joatea tokatzen zaidala. Joanesek esango du berriketan izan naizela, baiñan ez naiz aren burlen bildur. Gaiñera, oitura ori ez da oraingoa: *Ebanjelioan irakurri det San Juan jaio zanean*, auzoko atsoteri guztia bildu zala Zakarias eta Elisabeten etxean... edo zerbait olako.

*
* *

Amantal garbi bat arturik, goazen beraz. Eskutsik nijoa, baiñan geroxeago itzuliko naiz erregaloekin. Oraingoan, sar-atera bat egin nai det bakarrik: zer berri dan... nere bearrik baduten... eta olako.

Oi! Alaitasun batek artzen dit biotza! Arritzeko

al da? Udaberrian, auzoko zelaian agertzen dan loreak pizten dit biotza. Txori bat asi dedilla kantuz, edo enara bat dijoala aidean txio-txioka, guztiak poztutzen gera.

Nola poztu ez, aur bat, loreetan baliotsuena, jaiotzen danean?

*
* *

Zer izango dan, iñork ez daki. Jainkoak bialdua dala bakarrik, eta Jainkoarengana itzuli bear...

*
* *

Bitartean, jayotze berri baten premia ba-du. Zer balio du aur jaio-berriaren itxura ederrak... Jainkoa falta baldin badu? Ariko gera, auzokoak ala aideak, ba-duela olakoaren edo alakoaren antza. Zer ajola zait neri, Jainkoaren antzik ez baldin badu oraindik?

O, nai nuke biar bertan gure kanpai txikiak zabaldu zezala jaio dala, egiaz jaio, Jainkoaren aur bat!

Zer zoriona, orduan, Uhaldebordako familian, eta auzoan eta erri guztian!

# *Opariak*

Mundu tristea! Batzuk etorri, besteak joan: zorion osorik ez dago.

...Uhaldebordako etxekoandre zaarra oso makal dago. Etxekoandre zaarra? Ez da ba ain zaarra. Irurogei urte ozta-ozta, baiña lanek eta atsekabeek zimeldua, pixkanaka-pixkanaka beerantza ari omen da, eta medikuen ustez ez da luzaroko. Alabak ba-zuen ba oraindik amaren premia!

*
* *

Ikustera joan bear natzaio. Jainkoari eskerrak, ez du gaisoak ezeren falta, baiña olakotan nola egon auzokoak alkar ikusi gabe, alkarrekin izketatu gabe? Eta nork daki gaisoak ez ote duen gogoko adiskide bat ikustea, itzegiteko gauza izan ezta ere?

*
* *

Saskitxoan ipiñi ditut gauza guztiak: libra bat txokolate, kilo bat azukre, libra-erdi bat okaran azukrez gozatuak, eta Maiderrek berak propio egindako pastel arin bat. Oillo bat ere gogotik eraman-

go nuen, baiñan Uhaldebordako Anitak esan dit alperrik zala, gaurkoz beintzat...

*
* *

Eri gaixoa! Nik uste nere erregaloek baiño atsegin geiago egingo diola nere ikusteak!

Aurretik ba-det alako susmo bat: bearbada gu joango gera leenago, baiñan medikuek diotenez, or bizirik ikusten degun emakume ori laister azalduko da Jainkoaren aurrean!

Pena izaten dute batzuk beren gaisoak etzituztelako bear bezela zaitu... il ondoan pena: ez al gera aurretik arduratu bear?

*
* *

Leenagoko denporetan, itzal aundia omen zuten kristauek beren gaisoentzat, eta ospitalak deitzen zituzten "Jainkoaren etxeak".

Izan ere, gaiso bat duen etxea ez al da ziñez Jainkoaren etxea? Gurutzeak ez ote du gugana erakartzen, bestela gugandik ain urruti legoken zeru-lurren Nagusia?

Oroitzen naiz gaiñera nolako ardura artzen zuen gaisoez Jesusek... Eta ba-dakit galdetuko didala, egun batez, gaisoak ikusten izan nintzan ala ez...

Ba-noa, beraz, Uhaldebordako etxekoandrea ikustera: ba-noa, elizara bezela...

# *Il-kanpaia...*

So, il-kanpaia... "Aitaren... Jauna, ar zazu zurekin Uhaldebordako Maria, eta betiko argiak argitu dezala!"

*
* *

Igandetako erropa jantzirik, Joanes joan da elizara gurutze-billa. Orain, txapela kendurik, ba-dakar, berria etxez etxe zabaltzen dan bitartean...

*
* *

Mingaiñak ez dira geldi egongo. "Gaixoa, etzan ba zaarra... Etzan ez txarra emakumea... Akats gabekorik ez baita..." Eta olako. Obeki egingo genuke, berriketak utzirik, otoitzean asiko bagiña, il-kanpaia aditu bezain laister. Ume giñala, ama zanak belauniko ezarri eta errosarioko amarren bat errezatu arazten zigun. Nik ere eman bear diet usario kristau ori nere aurrei...

*
* *

Arratsaldean, dana utzirik, Joanes joango da alboerrira il-berria jakin araztera, an baitituzte Uhaldebordakoek beren aide geienak. Andik etorri eta aldekoen beiak jatzi eta gobernatuko ditu, gureak ba-

lira bezela, zeren ez da oitura ildakoaren familia lanean aritzea.

Neroni ere ba-noa aguro, jatekoa prestatzera, Maider etxean utzirik. Auzoko beste batzuekin eriotz eguneko bazkaria prestatu bear degu, berrogeita amar bat lagunentzat. Etxean, bistan da, eta ez ostatuan: ez al da ukigarri norbait etxetik ateratzen danean, etxeko guztiek eta oien aideek elkarrekin bazkari bat egitea?

*
* *

Agian or izango da Bizkaittipiko norbait. Aspaldian erdi aserre ziran eta artu-emanik etzeukaten. Esan bearrik ez dago, dirua dala-ta, aserretu zirala. Nolakoak geran, izan ere! Dana utzirik joan bear, eta betiko emen bagiña bezela, ondasun ustel batzuei lotzen gera...

Zein eder litekean paketuko balira! Ez al lukete egin bear? Zer? Jainkoari eskatzen bere pakean ar dezala il gaixoa, eta berak aserre? Euskaldunak zer tema gaiztoa izaten duen batzuetan...

*
* *

Jauna, emaiezu danoi zure pake gozoa: ez bakarrik zugana otsegin diozunari, aren familia guztiari ere bai.

# *Mutur...*

Lendabiziko aldiz da, baiña alere ezin det irentsi... Orain dala bi egun aserre egin niolako, geroztik muturtu zitzaidan Maider... gure Maider eztia... Nork esan bear zuen?

Gertatua konta dezadan dan bezela.

Mojetatik etxera, beti goizik etortzen zan, bizpairu lagunekin, geienetan beti berak: Sabina, Maite eta Anita.

Asteartean, gau beranduan Maider ez ageri. Apaltzerakoan eldu zitzaigun. "Ago, neskatoa... Au al den ordua?... Non intzan?" Ez diot besterik esan... Aski, geiegi: zeren geroztik bi egunez itzik esan gabe gelditu zait. Mutu eta mutur.

Arriturik nengoen. Eta nik, nik ere ez amor eman nai: mindurik baldin bazan, bera lasaituko zala-ta... Baiña, nola iraun?

*
* *

Ezertxo ere gertatu ezpalitz bezela, izpidea eman diot bart... eta ura beingoan negarrez asi!

Amar urtez gaztetu zait. Zazpi urteko aurra bezela biurtu, eta guztiak kontatu dizkit. Agerreko Xanti aspaldian ondotik zebilkiola... Azkenean, pakearen gatik, asteartean izketatu omen ziran, plazatik irtetzean, elkarrekin ibilliko zirala... "Bear ez dan gauzarik ez dit esan, mutil gisakoa da..., baiñan, izketan, denpora joan zaigu, gu batere oartu gabe!"

Egon naiz erantzuteko oraindik umegorri bat zala eta ia ez al zan lotsatzen...

*
* *

Baiñan pentsatu det, eta esan diot: "Maider, oraindik gazte aiz. Gaizkirik ez denala egingo ziur aiz; ni ere bai, kasik... Ezen, kontu euki bear den, aul den gaztea, eta etsaia sekulan ez lo... Milla aldiz obe den ire lagunekin ibiltzea: etorriko den denpora lagun bat autatzeko. Bitartean, ikasan bizitzen, etxe bat... eta ire burua gobernatzen. Libre den, noski, etorkizunari irriparre egitea, baiñan bizia ez da amets bat, eta ez da on ametsetan jardutea... Beste gauza bat: zergatik egon aiz aserre? Esan, Maider, beste aldi batez, amari ez al dion emango ire gogoaren berri?"

Baietz esan dit... eta besarkatu egin nau.

# *Eskalea*

"Ama, Mari Beltxa emen da. Eman bear al zaio zerbait?"

—"Baietz, ume, len ere esan diat, eskaleari beti eman bear zaiok,... eskale ori Mari Beltxa naiz Xuria bada ere".

*
* *

Ez dakit Peiok konprenitu nauen, baiñan berriz ere esango diot.

Leenago, ba-zan gaur baiño eskale geiago: Batista Okerra, Kaiet Tunpin, Tomaxa Barbot, Patxi Zangaluz, eta zenbat olako?

Zenbat platerkada-salda gurean edanik joan dira!

Ba-ziran etzateko leku baten eske etortzen ziranak ere. Gu, aurrak, bildur..., edo itxura beintzat. Baiñan aita zanak ematen zien beti txoko bat, ez bazan oea, beintzat lasto on bat eta aterpea.

Orain eskaleak gutxitu dira, baiñan goiz oitu nai ditut nere aurrak ematen.

*
* *

Ematen! Ain nai dute orain geienek artu! Gerra ondoan batez ere, gazteek uste izan dute trebetasunik

aundiena zala diru asko biltzea, zuzentasunari begiratu gabe. Guk ere zer ejenplua ematen genien? Estraperlurik orain ezpada ere, ni bildur naiz ondoreak ez ote diran oraindik gazte askoren gogo biotzetan.

*
* *

Egia esan, ez da oraingoa. Euskaldunek ez ote degu fama txarra? Betidanik dirua nekez irabazten, eta dirua maite. Askotan dirua Jainko. Ezagutzen ditut milla pesetagatik betiko aserretu diranak, elkarrengandik apartatu... Odol asko ere ixurtzen omen da bazterretan, ondasun zikin batzuengatik aserretu ondoren.

Ba al diteke olakorik? Bere gurasoak etxetik kanpora bialtzen dituena, diru gosez, izan al diteke kristaua? Ez, ezin diteke. Itxusikeria ori ez da Ebanjelioaren eskola. Baiñan, zenbat ez dira pixkanaka pixkanaka ortaratzen, berak oartu gabe... Ain da irristakor bide ori...

*
* *

Jauna, ez dizut eskatzen nere aurrak aberats izan ditezen: emaiezu biotz ona, eta ba-dute aberastasunik ederrena!

# *Gaisorik*

Ba-nengon ez ote nuen nik ere gripe txar ori bildu bear!

Bizpairu egun auetan giltzurrinetatik miñez nintzan, baiñan uste nuen bero tanto bat aldizka edanez egotziko nuela. Baiñan ez. Gaur gabean oso lo naasia egin det, eta Joanesek esan dit obe nuela gaur oean egotea.

*
* *

Eta orra nun nagon orain, etzana, besteak jaikirik daudela, jo ara eta jo onera!

Ez naiz ola oitua! Jainkoari eskerrak, beti osasun azkarra izan det, eta nere ama zanak zion Mari-Mutil aire bat ere ba-nuela —gaztetan, jakiña—... Geroztik eztitu naiz, baiñan ez det ezer esaterik. Lanean franko errexki ari naiz beti.

*
* *

Eta orain, emen... Goizeko amaiketan oean... Zertan ote da sukaldea? Maider etxean gelditu da, baiñan oraindik ba-du alako ume-tankera bat!... Nere aza-saillak ere baluke jorraldi baten premia... Eta ainbeste konponketak egin bear: mutiko oiek batez ere dana ondatzen dute... Eskutitz bat ere bidali nai nion

Ameriketako nere anaiari: denpora joan, denpora etorri, aspalditik daukat egiteko. Zer pentsatuko du? Eta zenbat olako?

*
* *

Eta ni emen... Noiz arte? Bularrak txistuka ari zaizkit: ez ote det gaitzen bat? Baliteke... Jainkoak nai duen bezela...

Ni baiño doakabeago danik ba-da bazterretan. Zer falta det? Ba-det etxea, ba-det familia, ondo zaitzen naute. Aurrak goitik emanak. Goizetik gabera Maider ama biurtua. Gizon bat emakumea bezelakoa...

Zergatik kejatzen naiz? Ba-det seta edo griña ori. Betidanik ola izan naiz: dana neronek egin nai. Besteengan konfiantza gutxi. Ustez ni baizik ez dala iñor!

*
* *

Nor da egiazki bearrezkoa danik mundu ontan? Zu bakarrik, Jauna. Gu, ezerez utsa. Eta uste zerbait ba-gerala!... Ez al diguzu bialtzen gaisoaldia ori erakustearren? Onartzen det zure eskutik, Aita on baten eskutik bezela. Zure naia egin bedi!

Eta nork daki oean eramaten ditudan ordu oiek ez ote diran izango nere biziko ordurik baliotsuenak?

# *Ameriketako berri*

Pettan txikia etorri zaigu eskolatik korrika, pozpozik, karta bat eskuan:

"Ama, osaba Manexen berriak!"

*
* *

Manex gizarajoa! Ba-dira ogei urte ez dedala ikusi. Soldadutza egin ondoren, an ditugun aide batzuengana joan zan, ez dakit nik zenbat artalde ba-zituztela-ta. Kaliforniara eldu bezain laister oartu zan, ordea, "urrutitik urrezko" diran gauza franko, "urbilletik lurrezko" dirala. Gure aideek ba-zituzten artaldeak... baiñan besterenak! Egia esateko, gauzak makur joan zitzaizkien: asieran, mendian zeuden bitartean, diru-mordo ederra egin zuten eta beren gain jarri ziran. Baiñan, poliki-poliki irira irristatu. Eta azkenean irian erori. Amabost urteren buruan, berdin maizter ziran, eta goseak ez iltzeko, bear izan zuten mendira berriz itzuli, besteen morroi.

Etziguten olakorik bein ere salatu. Baiñan ara eltzean jakin zuen dana nere anaiak.

*
* *

Zer egin du berak? Bospasei urtez berririk ez bidali. Gure ama gaixoaren negarrak! Atzenean, bizi zalako berria beintzat el-arazi digu, eta geroztik aren

kartak zuzen-samar izaten ditugu.

Itxaropen gutxi, alere. Ez det uste sekulan ikusiko degunik emen gure Manex urrezko katea paparrean, beste "Amerikano" batzuk bezela.

*
* *

Egia esan, ez naiz arritzen. Mendian bizitzeko, mendian erroak egiteko, ez da gurikeria maite izan bear. Eta beti gure Manexek aul-aire bat izan du: "ni ez ikutu" esaten genion txikitan: ain zan minbera eta sentikor...

Zertan ote da orain? Xeetasun gutxi degu andik, baiñan ni bildur naiz sakela ez duela beroegi.

Gure Pettan gaizto au ari zaigu berak ere bear duela egun batean Ameriketara joan. Bearko du leenik bizitzen ikasi!

Ez da naiko dirua maitatzea: nork ez du maite? Betiko entzutea det lanaren bildur danak obeki egingo duela etxean gelditu.

*
* *

Gaiñera, bego beti etxea, eta bego erria. Bizitzen ikasten duena, emen ere biziko da.

Ez al da ala? Eta ba-da besterik: zertan ote du fedea gure Manex gizajoak?

Zer balio dute beste ondasunek, ori galdu baldin badu?

# *Zein geiago?*

Albo-erritik nator, piska bat nekatua, baiñan biotza bai pozik!

Egun osoa eman degu eun bat emakumeek, elkarrekin, ...eta isillik! Bai, isillik. Ez nazute siñestuko, berdin zait.

Zer uste dezue, berriketan baizik ez dakigula emakumeek? Gizonak, aldiz, beti isillik daudela? Bai zera, ikusi tabernan: gauza bati eldu, eta ekin ta ekin, lengoari berriz ere eltzeko, orduak eta orduak...

*
* *

Dana dala, balio aundiko eguna izan degu. Ligak antolatua, albo-erriko apaiz bat gidari. Ez da ez sermolari aundi oietakoa, ez batere oiu egillea, baiñan itza etortzen zaio garbi-garbia, eta zein barrena sartzen dan! Mintzatu zaigu euskaldun emakumeen eginbidez, bear gerala besteen animez ajolatu. Elizak lanera deitzen gaituela, ba-dala oraingo egunean danen premia, gazteria batez ere babesik gabe dala ezbaldin badegu konprenitzen, guk, ama familiakoek, zer duen

on eta zer kalte. Ez ditut ez danak gogoan artu, baiñan biotzean ba-det denpora berean alako samin eta alako gozo bat...

*
* *

Zer? Bear al degu besteezaz ere arduratu? Egun batean Jainkoari kontu eman bearko al diogu gure eta besteen buruaz?

Agian ala izango da, denek bat egiten baitegu: familian bezela, bat auzoan, errian, eta geiago oraindik Jainkoaren Eliza Santuan. Eta obeki konprenitzen det Euskal Erria ere osorik salbatuko dala edo osorik galduko. Euskaldun guztiek bat egiten baitegu...

* *
*

Ala da... Ala da... Ba-degu, beraz, zer egin, danak elkarrekin, bakoitzak al duen bezela... Oi! nere biotzaren samiña! Ez al naiz langille guztiz aula?...

*
* *

Baiñan denpora berean, zer gozoa: jakin millaka eta millaka ba-gerala kristauak, lan berari lotuak, Jainko maitearen alorrean zein geiagoka!

# *Iru egunerako*

Ba-dira aste batzuk, jaun erretorea etorri zitzaigun, dana zurikeriz... Nik bereala antzeman nion eskabideren bat ba-zeukala gogoan. Ala izan da: eskatu zidan... gure Maider! Bai, gure Maider. Iru egunerako. Garoa ebakitzeko ez, noski. Esan zidan on izango zuela iru egunerako joatea Angeluko komentura. Ni arritua, egundaiño ez zitzaidala gogora etorri Maiderrek moja sartu bear zuenik...

*
* *

Jaun erretorearen parreak! Ez zuela ez ori esan nai. Maider ez nuela galduko, berriz eskuratuko nuela... baiñan obetua, prestuago ta gisakoago. Labur, esplikatu dit Maiderren antzera ba-dijoaztela asko Angelura iru egunerako. An, elkarrekin otoitz eta meditazioak egiten dituztela, apaiz bat gidari, eta biziki gustatuak itzultzen dirala etxera.

Gure Joanesen arritzea, esan diodanean norako

izan dan eskatua gure Maider! Baiñan isil isillik gelditu da, eta pixka bat egonda gero, esan du: "Bijoa!"

*
* *

Eta joan da... Eta pozarren itzuli zaigu. Ez dakizkit ez gauza guztiak, an ikusi eta ikasi dituenak, barneko kontu oiek ezin baititezke danak salatu, ama bati ere... Jakin det alere ogeitamar ba-zirala, danak baserriko alabak, danak inguru onetakoak. "Eskualdun gazteriako" kapellaua gidari, ainbeste gauza jakingarri sakondu omen dute. Arritu naiz zer gaiak erabilli dituzten, argi eta garbi, emakume batek jakin bear dituen xeetasun askotan sartuaz. Iñor ez zaigu guri ola mintzatu gure gazte-denporan!

Bestalde, iruditzen zait milla aldiz ederrago, milla aldiz maitagarriago dala bizia, aurretik ola ikusten danean, kristau argiak argitua. Bildur nintzan billera oietan lanerako zaletasuna ez ote zuan galduko Maiderrek, baiñan ez nintzan zuzen ari!

*
* *

Gar izugarriarekin itzuli zaigu. Begitartea arrai, eskua erne, zer andre-gaia degun or! Izan ere, Ebanjelioak ez ote digu esaten ez duela ezer galtzen guztia Jainkoari ematen dionak?

# *Garia sartzen*

Zer beroa! Eta zer poza!

Gure galsoroa, orra lurrean. Jainkoaren eguzkiak urrez jantzitako garia, orra espalka etzana... Euritanto batzuk gaiñean izan ditu. Etzaizkio gaizki etorri, alea azitzeko... Gaur, berriz, or gera danok, gaur baitegu gariaren sartzea.

*
* *

Zer eguna! Jainkoak bidalitako ondasunak eskubeteka biltzen ari gerala iruditzen zait. Garia... eguneroko ogia... Garia, pekatu da pixka bat ere arrika botatzea... Garia, Jainkoaren emaitza, Jainkoren gorputz biur ditekena!

Laister, gure langilleak, dena izerditan, maian jartzen diranean, usteko det festa dala Haritzaldean. Eta ez al da ala? Aldeko guztiak gure etxean, lana azkarrago egitearren, eta biar izango da gure aldi aien etxean. Urteko garia etxe-barruan. Aurrak pozaren pozez, oraingoan makiña ikusi dutela-ta. Bai, zer festa!

*
* *

Pozik aundiena, ordea, nik. Nik egiten baitet astero-astero etxeko ogia. Eta egingo ere, Jainkoak nai

badu! Ba-dira ogia erosten asi diranak, obeki ateratzen diralakoan... Obeki ateratzen? Ez det siñesten. Samurrago, errezago, ori bai. Maiderrekin kontuak atera ditugu, eta oartu gera ez genuela obe gure labea uztea.

Bear da erregarri, bear da lan, baiñan zer deskantsua etxean, eta zer goxoa! Gure gizonek esaten dute etxeko ogiak ba-duela indar berezi bat. Eta ori neronek ere aspaldian probatua det.

*
* *

Bestenaz ere... aitortuko al det?... etzait gustatzen beti dirua eskutan ibiltzea. Diruak zikindu egiten baitu... Leenago ez zan olako sosik eskutartean erabiltzen, jendea zuurki bizi baitzan, bere lanetik, tratu eta salerosi geiegi gabe...

*
* *

Bego beraz gure labea. Bego gure ogi-orea, legamiak ostiral gau danetan arrotzen duena. Beude aurren begiak txoratzen dituzten opillak. Gauden gu: ez geiegi arrotuz, bestela, Ebanjelioak dionez, egiaz ez gera goratuak izango-ta.

# *Lendabiziko aldiz*

Ogi-sartzea izan genduan lengo ostiralean. Badegu beste ogirik gaur!

Ez ditu oraindik sei urte gure Pettan txikiak. Baiñan, ura piztia! Deabru uts-utsa. Bai... eta ezin siñistu ditekena, egun auetan erabat gizondua, esango nuke kasik aingerutua! Zer gertatu zaio?

Ez da ba gaisorik. Ikusiko bazenitu aren burrukaldiak! Ez, ez da gaisorik. Baiñan aspaldian ari zitzaitan ia noiz Jauna artuko zuen.

*
* *

Nik, aurregi zala. Lenago bear zuela aunditu, eta batez ere ona izan. Etxe-aurre ortan neronek ikusi det pareta baten kontra zutik, bere buruari neurriak artzen ari zala. "Zer ari aiz or, ume? —Ama, nai det ikusi ia aski aundi naizan Jauna artzeko!" Irri egin det leenik... Baiñan gero ba-nengoan olako gosea zuen aur bati ez ote zitzaion jaten eman bear.

*
* *

Jaun erretoreak zion gaiñera, dotriñean franko poliki ari zala gure Pettan. Bestalde, txorakeria zala

uste izatea nornai bere alegiñez biur ditekenik Jainkoa artzeko gai. Bear da aski adimendu, aski jakite, bistan da, oartzeko zer ari dan; biotzean ere bear da aski Jainkoaren gosea, aski borondate on, pekatutik alde egiteko... Baiñan gauza guzti oiek ez al ditezke aur batean arkitu, adiñeko lagun batean bezain ziur?

*
* *

Oiek ola, bai apaizak, bai etxekoek, alegin guztiak egin ditugu gure pizti txikia ezitzeko... eta, zer dan Jainkoaren grazia! egunetik egunera bestelakotzen ari zala oartu gera. Ikusi bazenu otoitzean! Bazeneki nola ikasi duen bere burua ukatzen, berez ain temosoa izanarren!

Ots, gaur egun aundia izan degu. Abarrotsik ez: barneko festa bego barneko. Aitabitxi-amabitxiak bakar-bakarrik bazkaltzen. Guztiak elizan, meza-bezperetan.

*
* *

Ausartuko al naiz esaten?

Lendabiziko aldiz ikusi dedanean gure Pettan txikia Zeruko Ogia artzen eta jaten, iruditu zait bigarren aldiz aren ama egiten nintzala.

Eta ez al da egia?...

# *Kanpotarrak Haritzaldean*

Au bai kontu polita!

Ostatuko alaba oraintxe bertan atera da gure etxetik. Ba al dakizu zer zekarren?

Datorren agostuan etxea bete-betea omen dute kanpotarrez. Iñondikan ere ezin denentzat leku egin. Lotarako beiñipein nai luteke toki puska bat gure etxean. "Bazterrak ugari dituzue Haritzaldean... Zergatik euki alperrik olako gelak?... Bestalde, illaren buruan diru garbi apur bat eskuratzeak, ez al du ajolik? Ez al da zernai bear gaurko egunean?" Eta, eta...

*
* *

Elkarrekin izketatu gera Joanes eta biok. Oartu ote da ez zitzaidala batere gaizki iruditzen gure etxea kanpotarrei zabaltzea?

Betiko lelo jakiñakin asi zait: "Ba, zuek, emakumeek, ez dezue dirua baizik gogoan!

Egia, nik ere ez diot ez txu egiten. Baiñan gauzak ondo ikusi bear dira!"

Ondo ikusi!... Bazterrak prest dirala oarturik, isil isillik joan zaigu ostatuko alaba.

*
* *

Eta orain bakarrik nago, pentsatzen.

Zer egin? Ez da errez... Gure amona zanak esaten zuen Haritzalde beti diru gabe bizi izan dala: ju... nik uste gure aurrekoek ere ez dutela sekulan dirua leiotik bota.

Edozein modutan ere, ezin diteke ezer gabe bizi... Euskaldun emakume guztiena da, al dala, beti diru pixka bat aurreratzea. Eta gaurko egunean, sekulan baiño geiago bear da! Leen, soiñekoak ere etxez etxe nolabait egiten omen ziran: orain jateko ere bolsa maiz eskuan bear. Gure kulpaz? Baliteke, baiña atzera ezin egin. Dirua bear, gero eta geiago, eta dirua falta!

*
* *

Bestalde, ez dira ez kanpotar guztiak jende txarra. Asko ba-dira gu baiño obeak, fede aundikoak. Jakiña, goxoago litzake bakarrik, gure artean. Naita-ez, gure aurrek dana begi ta belarri egongo dira, eta ez ote dute bear eztana ikasiko? Tira, naikoa da kontu ori eukitzea: nor artzen degun, eta gero nola dabiltzan. Ez digu gaizki artuko Jainkoak Haritzaldeko ateak pixka bat zabaltzen baditugu...

# *Moda berri!*

Bazterrak nola ari diran kanbiatzen! Gure illak berriz etorriko balira, ezagutuko al luteke Euskal Erria?

Asi gaitezen etxetik. Gure aur gaizto oiek beti parre egiten didate ori kontatzen dedanean, baiña, egia, nik ezin aaztu erretxina-argia. Maider sorgin au ari zait orain beti lelo berdiñekin, zertako jarraitzen diogun gure labeari, obe genukela ogia kanpotik ekarri...

*
* *

Nor dabil oiñez orain? Zaldi-gurditxoak berak estimazio gutxi. Itxurea, bazterrak dotore egoteko, ez da olakorik ikusi bear! Nork nai du orain trikitraka bere astotxoaren gaiñean esne saltzera joan? Orain, esne-biltzailleak etxera etortzen zaizkitzu, eta gaztaia egiten ere laister aaztuko zaigu...

Zertako aipatu janzteko modak? Baserritar gazteak, kaletar irudi nai, eta egia, zein zein dan ez beti ageri, neska oiek batez ere danak printzesak dirudite...

Lan egiteko moduak ere, nola aldatu diran! Non dira lengo aitzurlariak? lengo segalariak? Orain, beiek edo zaldiek erabiltzen zituzten tresnak ere ez dira aski, eta traktor oietara dijoa jendea...

Eta zenbat olako!... Baiñan moda berri oiek zergatik illuntzen didate barnea?

*
* *

Ez det uste gizonak leen baiño gogo erneagoa duenik. Lengoen jakintzak orain dakarzki bere ondoreak. Gizaldiz gizaldi ereindako aziek, orain ematen dituzte beren frutuak. Poliki-poliki, Jainkoaren indar neurrigabea ari da agertzen. Ezen, lurretik orain ateratzen dituzten ondasunak, Nork ezarri zituen? Eta zein begik begiztatuko zituen, gizonaren begiari eta gogoari Jainkoak bere argitik eman ez balio?

*
* *

Ez, ez degu zergatik fedea galdu. Oraingo "moda berriek" bear ligukete bizkortu: gizonaren indarra erakusten digute moda oiek, baiña gizona ez ote da Jainkoaren obra?...

*
* *

Eta gaiñera, oiek ere bere garaiean itzaliko dira... Moda berriak ere zaartuko dira... Mundu ontan, gizonaren animak bakarrik iraun dezake beti gazte... ez baldin badegu beintzat, zabarkeriz, zaartzera uzten!

# *Txistulari...*

Nola dijoan denpora! Biar erriko pestak ditugu, eta gure Pattin txistulari! Ez zaio itxusi; gizon-itxurak artzen ari da, eta jolasa maite du. Arritzeko al da?

Leen izan genuen errian erretore bat ona, santua, jendearen goraberak konprenitzen zituena, baiñan erriko pestak urbiltzean burua galtzen zuen: aren sermoiak, aren deadarrak! Gu, ikaran... edo-ta, batzuk beintzat, irria gorde eziñik. Gaixoa!

*
* *

Bein baiño geiagotan esplikatu diet nere aurrei jolasa ez dala txarra. Ba-da, ordea, modu bat! Eta ba-da neurri bat!

Leenik, Maiderri ezin diot gogoan sartu auxe: zergatik uste dute gazteek dantzatuz baizik ezin diteke-la jolas egin? Esan diot ere dantza berez txarra ez izanarren, pekatura oso errez irrist-araz dezakela. Ziñez egia esango balukete denek, jakingo genuke, ba, zuzen zergatik dabiltzan plazaz-plaza ainbeste Marimutil!...

Erriko pesta-egunean, danen bistan, besterik da... Ez gauaz! Ori denek ba-dakite, baiñan ez ikusi egin,

eta aurrera ari dira. Zer atseginа nuken gure txistulari orrek bilduko balitu bere lagunak, gazteria gauaz etxean uzteko!

*
* *

Nork daki? Ortaratuko da, bearbada, "Eskualdun Gazterian" sarturik baitira geienak... Gaiñera, oraingo soiñu eta dantza-mota ergel oiek utzirik, nai luke gure oiturei dagokion musika zerbait ekarri... Ez dakit, ez dakit... Edozein modutan ere, ba-det ustea ele zozo eta astakeria gutxi onartuko duela: ez al da ori kristau gazte baten lana?

*
* *

Nik ere nai nuke Maiderrek konpreni dezala, dantzan ez ibilliaz, ez duela ezer galduko, eta bai zerbait irabaziko: Mariaren alaba osoki, benetan, izan nai duenak, nola onartu dezake ezta pekatuaren itxura ere?... Baiñan ortaratu bear luke berez... Nork daki?

*
* *

Ez nuke tristetu bear! Haritzaldean ez gaude erriko pestak uztekotan, eta ba-noa lanera aguro, ezeren falta izan ez dezagun...

# *Lurdesko itzulia*

Berriz ere aitortuko det: urtero egingo ezpanu nere Lurdesko joan-etorria, zerbaiten falta izango nukela...

Leen, noiztenka abiatzen giñan egun baterako, adiskide batzuekin. Orain euskaldun guztiekin batean joaten gera, milla aldiz gartsuago iruditzen baitzaigu olako erromeria...

*
* *

Pixka bat gogoratzea aski degu ori konprenitzeko...

Ama Birjiñak esan dio Benardetari: "Nai det prozesioan etorri ditezen", esan nai da elkarrekin, eta ez bakoitza bere aldetik.

Nik ori ezin konpreni-arazi nere adiskide zaar bati! Otoitza ez dala derriorrean bakartadean egin bear, eta Jesukristok berak esan duela: "Baldin bi edo iru nere izenean biltzen badira, ni an izango naiz aien erdian".

*
* *

Gu egongo giñan bostpasei milla gutxienez, eta beste arrazetako erromesak ezin konta. Ango kantuak! Ango sua! Iñon ez det an bezela sentitu Eliza

familia bat dala, kristauek bat egiten dutela, eta ez dala munduan indarrik gurea ziñez garaitu dezakenik, elkarri josiak baldin bagaude.

Bearbada olako jendetzak biltzen dira beste toki batzuetan ere; adibidez, merkatuetan... Baiñan ez da berdin! Falta baita orduan egiazko lokarria: Jainkoa!

*
* *

Leen, Lurdesera joaten nintzan Ama Birjiña bakarrik gogoan. Koba-aurrean errosario batzuk esan, bizpairu kandela eskeiñi, ur santutik trago bat edo beste edan, ortan zan nere erromeria guztia...

Orain, berriz, konprenitzen det ez dala egiazko erromeriarik egiten, ez baldin bada Jainkoarengana gertuago eltzen... Lurdesen, lanean ari da Andre Maria, ez bere buruari ospea emanez, baiñan bere Semeari. Ez al da ortan guztia: Jainkoarengana urbiltzea?...

*
* *

Lurdesko miraririk aundienak ba-dakigu zein diran: gor edo itsu, elbarri edo nagi ziran animak sendatzea...

A! Siñestuko bagenu anima dala leenbizi!

# *Errosarioa eta «pañelua»*

Oroitzen naiz... Nola aaztu nezake?...

Etxetik norabait abiatzen nintzalarik, amak beti galdegiten zidan sakelean ote nituen "errosarioa eta pañelua"!

Gaixoa...

*
* *

Oraingo neska gazteak, sakela gutxi. Pañelua, al danik ariñena, gorde-erreza. Non dute tokia errosario bat sartzeko?

Edo errosariorik eramaten badute, al danik txikiena, ez aren aleak beatz artean erabiltzeko, baizik pitxi antzera, paparrean edo eskumuturrean ekarri oi dan urre edo zillarra bezela...

Errosario gaixoak!

*
* *

Nik, berriz, askoz naiago gogorrak, beatzen artean irrist egiten ez dutenak: otoitz egitera beartzen zaituztenak.

Gure amona zaarra, makiña bat esanda joan zaigu! Irakurtzen ez zekian, baiñan egingo nuke edozein jakintsuek aiña misterio gogoan erabilli duela bere denporan. Ezen errosarioa ez zan arentzat mu-

sika-soiñu bat. **Agur Maria** esatean, ba-dakit zer zuen gogoan: gure erlijio santuko egi guztien sorta, umedenporan ikasitako misterioak ez baitzituen sekula aaztu!

*
* *

Ez det esango ura beste naizenik: nere errosarioa eskuan dedala, ametsetan bezela asten naiz batzuetan, gogoa erabat barreatua. Oartzen naizenean, esnatzen naiz... berriz ametsetan asteko... eta ola. Ez det ez zergatik arrotu... baiñan aitortuko al det ez naizela geiegi naigabetzen? Gure Ama onak ikusiko du zerutik, eta ba-daki zer dan emakume izatea eta lanean etengabe ari bear izatea...

*
* *

Bearrena ez ote da ori: gogoa gure Amarekin eta gure Jainkoarekin izatea, al diteken sarriena? Orretarako, zer lagun estimagarria dan sakelean errosario goxoa... Lanen artean, iñor oartzeke, ikutzea degu aski, **Norbaitekin** oroitzeko!

...Bai, nere aurrei ere galdetuko diet beti, kanpora dijoaztenean, ia sakelean dituzten "errosarioa eta pañelua".

# *Sutondoan*

"Ama, noiz asiko gera berriz sukalde zaarra piztutzen eta sutondoan egoten?

—Ago... ago... etorriko dituk bai goizegi otzak!"

Goizegi? Ez dakit... Subazter-zale da oso gure Pattin. Gizajoak ez du demandarik merezi: egurra txikitzen bera ari baita aspaldion, neguko goxoari eusteko.

*
* *

*Neguko goxoa!* Ni katillu bat esne altzoan, aurrak inguruan eserirk, aita zokoan kiribildua, enbor eder bat sutan, ez da erregerik ez erregiñarik gu bezin zoriontsu danik...

Zein goxo!... Ez gaude beti izketan. Zertako? Jendea ez ote diteke mintza isillik egonda ere?... Gure etxearen pakea orduan da ageri. Familia zer dan, elkarrekiko lokarria orduan degu sentitzen. Maider bere esku-lanetan, ni galtzak konpontzen... gizonak aldiz ezer egin gabe, edo gaztaiña-danboliñari eragiten... Gure aurren poza, orduan: gaztaiñak tiroka asten diranean ezin egon, irrikitzen, aora eramateko...

Ba omen dira etxeak gaztaiñarik geiago biltzen ez dutenak. Ainbat txarrago! Gaztaiña ez da bakarrik Euskaldunen janari zaarra: ortaz gaiñera, elkarganatzeko aitzakirik gozoena ere ba-da! Eta guk aitzaki ori ondo aprobetxatzen ba-dakigu...

*
* *

Noizean bein Joanes asten da kontu kontari. Lilluratuta egoten naiz ni, zein ederki mintzo dan. Gure Maider orrek ba-du alako joera bat, euskera utzirik, frantsesera joateko, etxean ere. Bein baiño geiagotan esan diot begiratu dezaiola aitari, eta zer lastima aundia liteken olako mintzaera ederra galtzen uztea...

*
* *

Sutondoan batez ere, nola ez mintza gure aiten aitek or berton mintzo zuten mintzaera? Zer lokarri, ori ere... Eta zer txorakeria genduken erroak ola mozturik gure aldetik abiatzea, aurrekoen laguntza gabe!

...Ez gera ortan, Jainkoari eskerrak. Gure sutondoan sua pizturik dagoan bitartean, biziko da biziko Haritzaldean gure euskera maitea!

# *Zure itza, Jauna*

"Jesus! neskatoa, zer ari aiz oraiño irakurtzen?" Arritzekoa da zer zaletasuna duen irakurtzera gure Maider orrek. Leenago, ezin izaten nuen ori ikusi: ezbaigiñan gu ola oituak gure gazte-denporan! Ba-gendun guk beste egitekorik!

Baiñan Joanesek berak konpreni-arazi dit oraingo gazteek ba-dutela zerbait ikastearen bearra. Apika, arrazoi du... Baiñan ikusi bear da, alere, zer irakurtzen dan! Liburuak, emandako guztiak artzen ditu, eta ez nuke nai gure andre-gaiaren barnea oraingo zikinkeri eta ergelkerietara jarriko balitz...

* * *

Egia da ez Mojetan eta ez "Eskualdun Gazteria" ortan ere ez dutela gazteek zernai irakurtzen. "Gazte" edo "Promesses" edo olako zerbait irakurtzen duteño, ez dute arriskurik...

Zer diot? Duela zenbait egun, ez naiz gutxi arritu Ebanjelio bat ikusi dedanean gure neskaren es-

kuetan. Geiago oraindik: bere bi anai zaarrenakin ikusi bazenitu Ebanjelioaz itzegiten, ez dakit zer itz argitu naiez! Nere kolkorako esan det: "Ekin, ekin! Ni baiño geiago ba-zerate!"

*
* *

Ni baiño geiago! Eta oroitzen naiz leenago irakurtzen zala Ebanjelioa euskaldun etxeetan. Gure aitona zanak ba-zekizkin buruz zati osoak, eta sutondoan kontatzen zituan...

Eta ez al litzake ola bear beti? Jainkoa mintzatu zaio gizonari; bidali dio sermolari bat ezin obea, bere Semea; aren itz baliotsuak, Elizak liburu txiki batean dauzka. Ba al da itz oiek baiño aberatsagorik?

Leen ikasi det itz bat naikoa izan dala gizon asko konbertitzeko. Bageneki itz jainkozko oiek irakurtzen eta aprobetxatzen!

*
* *

Ots, asmo bat artu bear det: gauero Ebanjelio santuko zati bat irakurriko degu familian. Zergatik ez? Lan orrek ez gaitu gure zeregiñetatik baztertuko! Zer ba? Emendik aurrera Jainkoaren boza entzungo da gure etxean: ez da olako "radio"-rik!

Nola ez genduen orain arte entzuten?

# *Beste Ama bat*

Urte Santua bukatu baiño leen, Ama Birjiñaren irudia jarri degu sukaldean, eta geroztik aren aurrean egiten ditugu gure otoitz guztiak. Zeiñen errezago diran! Zeiñen gartsuago!

*
* *

Gogoan det... "Boulogne"-ko Ama Birjiña gure alderdi ontan erriz erri ibilli zanean, aski zuan jendeak aren irudiari begiraldi bat egitea, otoitz eta negar egiteko... Ala ere, irudi bat zan bakarrik, eta ez iñon ez zegona...

Zer litzake, beraz, Amaren aurpegia ikusiko bagenu? Nolakoa izan zan Benardetaren lillura eta zoramena koban Andere zoragarria agertu zitzaionean!

Egia esateko, ni ez nintzake asko izutuko, ala iruditzen zait beintzat. Ama batek ez du aurrik izutzen. Ezin lezake. Andre Maria ez ote da, lenbizi, eta gauza guztien gaiñetik, Ama?

*
* *

Ori ederki azaldu digu jaun erretoreak: Maria ez dala Jainkoaren Ama pekatu gabea zalako, bai-

ñan pekatu gabea Jainkoaren Ama izan bear zuelako. Ama lendabizi: orra or grazia eta bikaintasun guztien iturria.

Eta Ama dan ezkero, zeren bildur izan gindezke? Jainkoaren seme gera, noski, baiñan semeak ez dira beren semetasunean ezarriak arik eta Ama bat izan arte. Orra nola geran Jainkoaren aurrean, osoki seme biurtuak. Eta Ama bat degulako paregabea, orra gu ere seme paregabeak. Jainkoak berak ez gaitu izutzen... edo ez zigun Jainkoak olako Ama bat eman bear!

***

Eta guk, emakumeek, zer esango degu? Aitortuko al degu gure konfiantza oraindik aundiagoa dala? Eta guk, ama familiakoek? Ez gera bakarrik, nekatuak eta akituak. Ba-da beste bat. Gure arteko bat. Guk baiño mirari geiago egin ez duena, bizi zan bitartean. Ez jauregi aberatsetan, baizik sukalde edo lantokian bizi zana. Senar langille batekin. Seme bat azi duena: eta nolako Semea! Munduko seme guztiak altzora ekartzen dizkiona!

Bai, egia esan, olako beste Ama bat lagun izanik, guk, ama familiakoek, uste osoa izan genezake.

# *Ezin parkatu*

Gure Pettan bai dala izatekoa! Pizti itxusia! Temoso utsa alakoa! Siñestuko al nazu bi egun auetan aitarekin aserre degula? Esan diot: "Ea, eskatu zaiok parkazioa!" Ba al dakizu zer erantzun didan? "Zergatik? Ark ere ez dit neri eskatzen!" Bost urteko umea!

Azitzen danean ere zerbait izango da, noski...

*
* *

Ez dakit norengandik duen seta txar ori... Baiña ajola gutxi du orrek. Ba-omen dira jatorrizko pekatua siñesten ez dutenak, tira, nik beintzat bai. Neronen burua ez aipatzeko, ba-ditut lau ume aziak, eta aspaldian oartu naiz, goizik, oso goizik, bere burua erakusten duela gure Etsai zaarrak.

*
* *

Esaten dute guraso batzuk umeak ez dirala zuzendu bear txiki diran bitartean, adiñarekin etortzen zaiela zentzua. Zentzua, baditeke. Baiñan birtutea? Nik uste det zentzua etorri-aurretik, oitura onak bear dirala landatu eta txarrak kendu. Mediku zaar batek esaten zidan egun batean gizonak nekez uzten dituela bularrean zegoanean artutako oiturak! Ez da arritzeko, beraz, griña txarrak indar artzen badute, asieratik —goizegi dala-ta— za-

paltzen ez diranean... Bestelakoak bagiña gurasoak, ez litzake ez bazterretan ainbeste ume gaizki ikasi.

*
* *

Ez det orain besteezaz ezer esan bearrik. Or degu gure Pettan.

Goxo goxo, (leen zaputz eta muker joan zait-eta) asi natzaio leunkeriak esaten, eta gero gogoan nuena esan diot garbiki: ez dala ola temoso jarri bear, politak giñakela ezbageneki elkarri parkatzen, eta, gaiñera, ez dagokiola ume bati bere aita juzgatzea.

Oraingo aurrak!... Ikasiko al dute bizitzen, eta familian batez ere bear dala kontu aundia, naigabe eta samin asko irentsi bear dirala isil isillik... Txikitan ezagututako español zaar batek esaten zuan "odola ez dala ura": ori egia; baiñan non giñake odola bagenu beti gure jaun eta nagusi?

*
* *

Oi Ama gozoa, erakuts zaiguzu, eta erakutsi gure aurrei, bakoitzak bere buruari, bear orduan, "ez" esaten!

# *Ura etxean*

Ezin ukatu nezake. Gazte nintzanean, ez zitzaitan batere gaizki txantxilla buruan iturrira joatea. Zein polita iturriaren soiñua. Zein gozo, gero, iturriko ur garbi freskoa!... Baita ere (zergatik gorde?) bide nabar egiten genituen berriketak!

Lexiba-egunetan batez ere, bizpairu lagun biltzen baziran, itz ematen dizuet ez zirala besoak bakarrik lanean ari, mingaiñak ere bizkor zituztela, auzoko eta erriko berriek igurtzialdi eta astiñaldi onik bazutela. Arrigarri al da? Ez, siñisgarri bakarrik...

*
* *

Baiñan gauzak diran bezela ikusi bear dira! Emakume bakar batek zenbat urrats ez zituen bear ura dala-ta, urtearen buruan? Eguraldia ez da beti ederra... Eguzkia ez da beti irriz ari adar eta ostroen artean, txoriak ez beti kantuz... Egun zakarretan, nolako lokatzak! Eta noiznai, nekatu bearra! Gaiñera, ura urri danean, bazterrak eta gorputzak ezin euki beti garbi...

*
* *

Aspaldian gogoan genuen... Ba-dira urte batzuk diru-pixka bat aurreratzen ari nintzala, nere arrau-

tzen sarietatik... Nere arritzea —eta nere poza!— Joanesek aitortu didanean berak ere ba-zuela bere diru-pillotxoa... eta bien ondasunak alkar joaz zerbait egin genezakela ura etxeratzeko!

Bereala asi ditugu lanak, eta orain erregiña baiño zoriontsuago naiz. Ura eskumenean degu: ez dira bakarrik lanak errezago, bazterrak garbiago, baiñan gorputzak ere alako goxo bat artzen du, sekulan amestu ez genuen ur korrientea etxean baitegu, eta denek, aundi-txikiek, ikasi degu, ez bakarrik astean bein, baiñan bear ordu guztietan, ur laister gozo orrezaz baliatzen.

*
* *

Ba-da besterik... Egingo nuke gure Maider ere geroztik etxeari josiago biurtu zaigula... Nola ez?

Eta ez det aaztu nai gorputzak garbi euki ezkero, biotzeko zikinkeria ere nazkagarriago egiten dala... Edozein modutan ere, ez zaigu damutu: dirua baiño leenago baita bizia!

# « *Ni, eiztari...* »

Oraindik umegorri bat zalarik, Pattini galdegin nion zer izango ote zan aundi egiten zanean: "Ni, eiztari!", erantzun zidan itzetik ortzera.

Geroztik, kanbiatuxea zaigu gure mutilla. Leen ezin egona, orain ezti eztia. Leen lanetik naiz eskolatik beti igesi, orain beti bere zeregiñari lotua. Etorkizunean zer izango ote?

*
* *

Aurretik nork esan dezake? Guraso batzuk or ibiltzen zaizkitzu beren aurretan eztakit zer aundikeriak ikusten. Ba-dirudi oien parekorik iñon eztagoela. Onek au duela gogoan eta ura egingo duela, beste batek olako joera duela, eta alako bidea artuko duela: profeta batzuk bezela mintzo dira, geroaz ezer ez dakitelarik.

Gaurko egunetan ez da ez errez seme-alabak bide onean jartzea. Lenago ez zan olako buruauste aundirik familietan. Dirua orain baiño eskasago zegoan, eta orain baiño ume geiago ba-zan: eta ez dakit nik nola demontre, baiña danak bizi ziran, batzuk besteekin, mutilzarrak anai-arrebekin, elkarren lagun, lanean bezela mai berean ere parte izanik.

Orain, non da olakorik? Bakoitzak bere biziaren jaun izan nai du. Kanpora dijoaztenak, etxeaz ajola gutxi. Etxean gelditzen dana (zaarrena dalako), ba-

dirudi kasik maizter dala: besteak dirua irabazten, ura berriz "txitxarak zatitzen"...

*
* *

Zer gertatuko da Haritzaldean? Nik ez dakit. Nik dakidana da bakarrik gure andregaiak ez duela etxea saltzeko, ez dala batere lotsa baserri batean bizitzeko. Nondik etorri zaion zaletasun ori, nik ez jakin: bearbada "Eskualdun Gazteria" ortatik, etxearen maitasuna erakusten baitiete. Ederki ori! Ez da lokarri oberik...

Gure Pattin, berriz, nekez geldituko zaigu etxean. Baiña baserritar izan bear omen du orrek ere. Izan ere, alderdi guztiak ikusita, ba al da bizimodu ziurragorik? Gaurko egunean nekez bizi dirala baserritarrak? Egia: baiñan ofizio ortan ere ez al dira ikasteak egin bear? Gure Joanes gaixoak ori aspaldian konprenitu du: "nere semeek bearko dute ikasi... baserritar izateko!" Nork daki gauzak ez ote diran berriz bere bidera etorriko, poliki poliki, gogo argi eta biotz erneko gazte batzuk jartzen badira lur-lanetan, orain oraingo erara?

*
* *

Ai ala balitz! Pena aundia izango nuke gure aiten lanak izango ezpalu emendik aurrera jarraitzaillerik...

# *Alkate!*

Oraingoan beintzat, neri tokatzen zait parre egiteko txanda. Leen, dana burla eta iseka nuen gure gizona: emakumeen billera batzuetan egoten omen nintzan "norbait" edo "zerbait" nintzalako itxurakin... izenez beintzat.

Nork esan bear zuen?... Gure Joanes alkate... Pakerik ez omen zuten, denek aitzakiren bat, eta azkenean Haritzalde autatu... Nork guri begiratu emendik aurrera?

*
* *

Irriak, egia esan, laister bukatu zaizkit. Kargu ori karga bat zala oarturik. Zer denpora-galtzeak emendik aurrera! Etxeko buru-austeak ez aski, errikoez arduratu bear! Tira, orixe falta zaigu!... Eta sikieran begiramen pitin bat balu jendeak! Balekite alkate batek ezin egin ditzakela berak nai dituen guztiak...

Oraintxe bertan, emen izan degu Etxeluzeko Joana Mari (ura izan bear...): berak ba-dituela nik ez dakit zer deretxo, zaarra danez bear lukela errenta ugariagoa euki, ori erriko gizonen egitekoa dala, eta olako... Ori asteko!

*
* *

Siñestuko al nazute esaten badizuet ez dedala bart begirik itxi? Leenik, guztiz suminduta: zertako

bear zuen gizon orrek lan ori artu? Ez baitu beste egitekorik...

Gero, berriz, esan det nere kolkorako: alere norbaitek bear du besteetaz ere arduratu... Zertan giñake iñor ezpalitz? Edo kanpotar bat bagenu? Gure izkuntza ez dakien bat? Baserritarren bizimodua ezagutzen ez duen bat? Aspaldian oartu naiz aitzaki gutxi bear dutela Euskaldunek nonbaiteko "sonbrerodun" bati uzteko beren kargu eta kargak. Zergatik ori? Besteek ba-dutelakoan eskola eta asti geiago... baiña baita ere bakoitzak naiago duelako bere txokoan egon...

*
* *

Zuzen al da ori? Kristau bat besteetaz ere ez ote da ajolatu bear? Arrokeriagatik egiten danean besterik da: baiña nik uste det Joanes ez dala ibilli orren atzetik... Familia ez zait iruditzen aaztuko duenik: betiko esana da bere buruaz gutxienik kezkatzen dana, ura laguntzen duela geienik Jainkoak... Alako gozo bat sumatzen det biotzean: nere aldamenean ikusten baidet nere laguna, bere erritarren laguntzaille emendik aurrera... Iruditzen zait zerbaitek aberasten duela gure etxea: amodioak ez ote?

# *Kantuz*

Aspaldian ez nuen olakorik aditu.

Leenago, jendea beti kantuz ari zan: jostuna bere aprendizekin, artzaia bere artaldeari begira, merkataria etxerakoan, bazkaltiarra jan bitartean. Mutiko gazteen txistuak zerbait ziran. Edo bidean edo ostatuan, edozeiñek bertso batzuk buruz jakin eta goitik bera ematen zituan.

*
* *

Orain, aldiz... batzuk txistuz, dantza-modu berrietako aire oiek joaz, besteak kopla zaar bat asi eta gero "tralera-lera-lera", besteak azkenean... isillik.

Ez det esan nai orregatik gauzak gaizki dijoaztela, baiñan alere gure erriek ba-dute il-aire bat kanturik gabe. Neguan txori gutxi ikusten da kantuz. Zer? Negua sartzen ari ote da Euskal Errian? Ainbat txarrago guretzat.

Neguan txoriak kantu gutxi, bazterrak otz diralako. Egia...

Ez ote dituzte beren kantuak galdu Euskaldunek, gogoa oztuxea dutelako? "Barnea bero, kantuz gero". Biotza agertzen du kantuak: biotzean surik ez bada, kantu gutxi izango da.

*
* *

...Orregatik nintzan ba tristetzen asia. Asia, ezen orain joan zait tristura...

Familia guztia izan gera eztaietan joandako asteazkenean, nere illoba Madalen ezkondu baita. Eztai ederrak: mezatan Jauna artu dute ezkonberriek (auxe oitura polita ari dana sartzen!) eta gero bazkari galanta, fantasi gabekoa, baiñan Euskaldunei dagokien bezelakoa. Ango alaitasuna! Eta ango kantuak!

*
* *

Arriturik nengoen... nork eskolatu ote zituen gure mutil biurriak. Nork eskolatu? "Eskualdun Gazteriak" omen. Orko buruzagi lagunek. Or berriz ikasten omen dute, elkarrekin, nola gorde bear diran leenagoko oitura onak, moda berri onak artu, Euskaldun iraun, gaur eguneko gisara biziz alere... Ori da ori guk bear bezelako eskola!

# *Anjeluserako etxera!...*

Jainkoari eskerrak ez zaigu maiz gertatzen, baiñan bart bazterrak illun ziran Haritzaldeko sukaldean... Arratseko Anjelusa aspaldian joa, eta Maider ez oraiño etxeratua! Mokoa fin fiña etorri zaigu azkenean, galdegiñez: "Gazteek ez badira jolastutzen, nor jolastuko da?" Ez gera mokoka asi... baiñan otz otza joan naiz oera, ez baitzait olakorik batere gustatzen...

*
* *

Gure denporan ere jolastutzen giñan, baiñan bildur aundia izaten gendun illunabarrean, ezpaitzan etxera sartu bear anjelusa jo ondoren! Bein baiño geiagotan kontatu dit Joanesek, nola —pelotari porrokatua baitzan—, elizako andre serorari eskatzen zion kanpairik ez jotzeko arik eta partidu batzuk egin arte!

Orain, andre serorak ba-dijoaz... eta nor da, gazteetan, oien bildur?

*
* *

Ez det esan nai bein edo beste ez dala zillegi... Ez det esan nai gauaz dabiltzan guztiak gaizki dabiltzanik...

Ez det esan nai gazteek askatasun piska bat, —eta eman dezagun gutxiegi zutela leen— bear ez

dutenik, batez ere gaurko egunetan: bestela, nork eutsi? Naiko lan ba-dute, ola ere, errian gelditzeko, irira joan gabe...

Baiñan, baiñan... Gero eta garbiago agiri zait egia au: ezin ditezkela gauza guztiak kanbiatu; denporak bestelakoak izanikan ere, gizona beti bera dagola, beti erorkor, eta gaur atzo bezela, atsegin zaiola gure etsai zaarrari bere eraso gaiztoak gauaz egitea...

*
* *

Ori, gazteek nekez konprenitzen dute... baiñan aisa konprenituko lukete etxera sartu ondoren, etxea ezpalego ain otz eta murritz.

Ez gazteak bakarrik, baiñan gizonak ere garaiz eltzen dira ongietorri goxoa duten etxeetara. Bestela, nola nai dezue plaza edo taberna utzi dezaten? Plazakoak eta tabernariak irriz, etxekoak, berriz, muker, ez da arritzeko etxeak gutxi tiratzen badu pesta-arratsetan...

*
* *

Etxea lendabizi: orra legea. Baiñan etxea izan diteke lendabiziko, pesta eta zine eta taberna guztiak gora-bera, goxo baldin badago.

Eta ori, kabi goxoa egitea eta zaitzea, ez al da emakumeen lana?

# *Bizia labur*

Negua da... Zein motx diran egunak!

Eta bein negua sartu ezkero, zer?

Iruditzen zait atzo izan zala Urteberri. Gu zaarrago eta egunak laisterrago...

Nere aldia ere laister beteko det, noski. Emakumea izanarren, ez det ukatuko ez naizela gazte.

Zaartzen ari naiz...

*
* *

Baiñan zer? Ez ote nuen zaartu nai? Ba al nuen besterik gogoan?

O, Jainkoari eskerrak, ez nau ez nere larruaren zimelak izutzen. Osasuna dedan artean, ez zait ajola... Bakarrik, bakarrik, biotzak pil-pil egiten dit eta alako illunaldi bat jausten zait, ordu aundia urreratzen ari dala oroitzen naizenean...

Mixiolari zaar batek esaten ziguna: ba-dakigula ilgo gerala, baiñan ez degula siñesten... Arraia sarezulotik bezela, nork daki ez ote naizen zirrikitu batetik aterako? Nekez. Obe det burutazio ergel oiek alde batera uztea...

Obe geroari begiratzea. Edozein modutan ere, biaje ontan gainbera abiatua, eta gelditzerik ez, nere biziaren kargak aurrera naramala. Eta burua non noiz dan ezin ikusi...

Argia eskuan al det bederen? Polita izango litza-

ke Ebanjelioko neskatx ergelak bezela itzalirik banuke, olioa agortzen utzi dedalako!

Olio ori zer ote dan ari naiz nerekin... Fedea? Jainkoaren bildurra? Otoitzeko garra? Aitortzen det astegunez ez naizela sarri elizan: ezin joan lanak utzirik... askotan beintzat... Ala ere otoitza maiz det gogoan. Apaiz batek konpreniarazi baitzidan ezpaiñak ez dirala nai-ta-naiez erabilli bear Jainkoari itzegiteko. Jainkoa ez baita gorra...

*
* *

Obra onak? Aitortzen det ez naizela aberats, ondasunak urri bainituen beartsuei emateko... Baiña alegiñak egin ditut familia kristauki azitzen, gure zaarren ardura eukitzen, eta fedearen argia nere seme-alabetan piztutzen... Ajola pixka bat ere izan det nere auzokoez, nere erritarrez... Bearbada ori eskatzen dit geien-geienik Jainkoak: maitasuna biotzean. Jainkoari eskerrak, gorrotoa zer dan, edo iguiña, ez dakit. Baiña ez da naikoa: bear det gaiñera, zerbait eman... zerbait egin...

*
* *

...Baiñan ez ote da zerbait, biotza zabalik eukitzea?

# *Eutsi eta jarrai*

Oso pozik dago gaur gure Joanes. Aspaldian gogoan zuen lur-sail bat erostea, eta erosi du, eta ez ain garesti. Ez genuen ez aren premia aundirik, ura gabe bizi gindezkean... baiña beti izan du etxearen arrokeri pixka bat, eta bazter orrek, gure lurren ondo-ondoan, kilima egiten zion. Arrokeria pekatuen iturria baldin bada, ez omen beti... Nik uste, batzuetan beintzat, izena berdin badu ere, izana bestelakoa duela.

*
* *

Dana dala, Haritzalde nai genuke ongi gorde eta ondokoei utzi. Nik ez dakit zertara goazen eta bazterrek ez ote duten osoki kanbiatu bear. Ala diote, Euskal Errian bertan laister baserritar gutxi izango degula.

Ez ote genituen orain arte geiegi? Bazterrak egal txikikoak, familiak oso ugariak, ezin danak leku berean bizi. Orregatik izan dira, ba, aspaldidanik, Euskaldunen artean ainbeste mariñel, "Amerikano" eta mixiolari... Orain, berriz, bildur naiz jentearen kanpora joateaz ez ote geran odol ustutzen ari... Ortan

beintzat Etxeluzeko Joana-Marik arrazoi du: "Iñork ez du nai geiago nekazaritzan... lurra beerantza baitijoa!"

*
* *

Lurra... Eta guztiarekin ere, ba al da adiskide leialagorik? Lurrak, gezur gutxi. Beti ziñez ari. Prisa gutxi, pazientzia ikaragarria. Bear dan denpora artzen du, Jainkoak agindu bezela. Ez du batere uztarik nai, arik eta Uztailla eldu arte... Neronek ere zer ez det ikasi lurrarekin eta lurrari begira? Eta zein aberatsa! Beti ba-du zerbait emateko... Jan ere nai du, eta edan (gerok ez ala?), baiñan beti lanean, isil isillik, beti bizia dariola...

Lurra izango dan artean, biziko da gizona. Gizona da kanbiatzen dana. Gizona da alperkeriari eta gezurrari jartzen. Bai noski, bizi moduak eta lanerako tresnak aldatuko dira, baiña Jainkoak ez ditu bere legeak aldatzen!

*
* *

Orregatik, ba-det ustea Haritzaldean jarraitu al izango degula, eta gure ondokoek ere jarraituko dutela... Egiazko ondasunak maite ditzagun artean bai beintzat.

Zer geiago nai dezu? Lurra, eta zerua: zein urruti elkarrengandik, eta zein gertu! Bata besterako bidea, noski: lurretik zerura!

# *Arratseko Otoitza*

—Bai, arrazoi den, Maider. Txintxo-txintxo, ontziak garbitu eta txukatu. Armarioan gorde. Zoko moko guztiak garbi eta txukun. Ez esan: Orain ez, gaua da-ta. Biarko eguna ez da gure. Oraingo unea, Jainkoak emana, aprobetxatu dezagun.

—Ola, ola, umeak: bi zaarrenak txikienari dotriña erakusten. Teologia guztiz zuzena duten beti, nik ez jakin... baiñan zuzentzaillea or degu, jaun erretorea!

—Eta gure gizonaren poza! Ba-dirala irian ordu onetan zinera dijoaztenak? Joanesesk ba-du beste zinerik: bere pipa maitea eta asterokoaren irakurtzea. Lanez itoa da egun oitan, eta zaartzen ari da, nere antzera... Esaiozu nai luken bizimodua kanbiatu!

—Neroni ere sutondoan ari naiz, azkeneko prestamenak altzoan ditudala. Azkenekoak? Ni bildur naiz biarko ere geldituko zaidala zerbait... Baiñan zertako litzake etxean emakume bat, ez balu lanik? Lana, ez ote da bizia?

*
* *

Ixo... Isil isillik gaude orain... Aurrak eztitzen asiak... Pettan bere zizailluan lo, Peio eta Pattin illintiei begira, ametsen bat gogoan balukete bezela... Zer

dute gogoan, gazteek? Ixo... Zein dan goxo, ola... Ain zuzen ere, kanpotik eltzen zaigu gure txakurraren zaunka: illargiarekin izketan, ura ere? Iriko zalaparta ez da onera irixten. Zer goxoa! Ixo... Gauden isillik, ola, ola... **Norbait** mintzo da.

.....

.....

**Norbait**... Ez genduke aaztu bear! Egun au, arengandik degu. Zer, burutazio bat gabe oean sartu? Ezin diteke! Zutik egiten degu. Eta belauniko. Otoitza ez degu luze. Baiñan danek esana, baliotsuago. Aurrak ari dira, errezatu eta errezatu... Joanes, isillik dago. Ni? Ezpaiñek zer dioten ez jakin, baiñan gogoa Norbaitekin...

Ba-diot zer esan, zer eskatu.

Eskerrik asko: zureak egin, eta gaur arte gorde gaituzulako.

Parkatu: aul edo txepel izan geralako.

Begira: begira guri, Jauna, baiñan batez ere gure aurrei.

Gu, ba-goaz, oiek, berriz, ba-datoz. Zer bide artuko dute? Ar bezate zurea, otoi...

# *Jainkoaren mirabea*

Zein barrena sartu zitzaizkidan egun batez Andre Mariak Benardeta santuari esandako itzak: "Mundu ontan oiñaze batzuk ikusi bearko dituzu, baiña itzematen dizut bestean doatsu izango zerala!"

*
* *

Neri ez zait mintzatu Ama Birjiña, baiñan badakit alere: zenbat eta lorrez beteago izan bizi au, ainbat eta alaiagoa izango degula bestea.

*
* *

Arantzez josiriko bizia? Ala ez danik ez dezagun esan: Jainkoari eskerrak, orain arte beintzat, eraman-eziñekorik ez det ezagutu. Baiñan bidean, eta bide-bazterrean, zenbat neke! zenbat izerdi! nolako kezkak eta negarrak!

Aprobetxatu banitu beintzat... Ez det aaztu bear mixiolari gartsu baten itz au: "ez da naiko gurutzea izatea, bear da artu, eta al bada, besarkatu!"

Ni bildur naiz alperrik ez ote ditudan naigabe eta atsekabe pranko, ez baitzait aski goiz gogoratu, bear nituela onartu eta eskeiñi...

*
* *

Auzoan ba-degu emakume zaar bat, bere denpora guztian Parisko jaun aundi baten neskame izan-

dakoa: bazeneki nola begia argitzen zaion leengo lanak aipatzen dituanean! "Olako jaun bat, nola aaztu?"

Egia da, egia... Ni, Haritzaldetik ez naiz atera. Ez det gogorik ere! Emen bertan naiko "jaun" izan det... Eta beste Jaun ura? Beti neri begira, neri mintzo zan eta dan ura?

*
* *

Egia esateko, beranduegi oartu natzaio. Jainkoa toki guztietan dala ikasirik, iñun ez nuen billatzen. Ez nekian bizi-leku berezia ba-zuela nigan, aren graziak zeramala nere bizi guztia...

Poliki poliki oartu naiz. Apaizen esanak, aldizkarietan irakurritako gauzek, Ligako billeratan aditutakoek begiak idiki dizkidate... Eta geiago oraindik bizi ontan artutako imurtxiek: nere atsekabeen erdian batez ere oartu naiz Norbait nuela ondo-ondoan...

*
* *

Norbait... Nere Nagusia... Eta ni aren mirabea!

Eta nolako mirabea! Ez bakarrik aren menpeko, baiñan lagun. Arekin eskuz esku, aur bat Aitarekin bezela... Bai, beste Emakume paregabe batek bezela kanta dezaket:

"Nere animak goratzen du Jainko Jauna... ezen begiratu dio bere mirabe txikiari!"

# *Arkibidea*


Irakurleari ... 3
Itzaurrea ... 7
Goizean goizik ... 9
Piztua! ... 11
Esnatu! ... 13
Eskolara ... 15
Mojetan ... 17
Tupintegiko Roxali ... 19
Amona ... 21
Nere oilloak ... 23
Baratzean ... 25
Eguerdi ... 27
Zein goxo! ... 29
Bazterrak garbi ... 31
Kanposantuan ... 33
"Aitortzen diot" ... 35
Aste guztiko indarra ... 37
Bezperetatik irtetzean ... 39
Azokara ... 41
Beti asten! ... 43
Adin txarra ... 45

Ederregi litzake! ... 47
Ba-dira egun batzuk ... 49
Auzoaren alaitasuna ... 51
Opariak ... 53
Il-kanpaia ... 55
Mutur ... 57
Eskalea ... 59
Gaisorik ... 61
Ameriketako berri ... 63
Zein geiago? ... 65
Iru egunerako ... 67
Garia sartzen ... 69
Lendabiziko aldiz ... 71
Kanpotarrak Haritzaldean ... 73
Moda berri! ... 75
Txistulari ... 77
Lurdesko itzulia ... 79
Errosarioa eta "pañelua" ... 81
Sutondoan ... 83
Zure itza, Jauna ... 85
Beste Ama bat ... 87
Ezin parkatu ... 89
Ura etxean! ... 91
"Ni, eiztari..." ... 93
Alkate! ... 95
Kantuz ... 97
Anjeluserako etxera! ... 99
Bizia labur ... 101
Eutsi eta jarrai ... 103
Arratseko otoitza ... 105
Jainkoaren mirabe! ... 107